



**AHO HIZKUNTZAREN SUSTAPENA
HAUR HEZKUNTZAN**

Lan hau burutu ahal izan da, alde batetik, hezkuntza premia bereziak dituen ikaslegoarekin lan egiterakoan jaso den esperientziatik eta, bestetik, lengoaiaren berreziketarekin zerikusia duen eta merkatuan aurki dezakegun hainbat dokumentuetatik. Hauen berri, azkenean jasotzen den bibliografian izan dezakezue.

Guztiarekin, Haur Hezkuntzako irakaslegoari tresna ordenatu bat eskeini nahi izan zaio, komunikazioaren eremuan lagungarri gerta dakion eta normalean gelan aurki ditzazken mintzaera eragozpen txikiak (jatorriz funtzionalak) ekiditzeko aurretiko lana burutu ahal izan dezan.

Lan hau burutzen Vitoria-Gasteizko P.A.T. 1 eta 2ko Entzumena eta Hizkuntza ondorengo irakasleak (logopedak) aritu izan dira:

ELENA SANCHEZ GUTIERREZ
M^a TERESA SAEZ DEL CASTILLO MORAZA
GUADALUPE ARTEAGA GOÑI
BEGOÑA RUIZ DE GARIBAY GARCIA
AURORA PALOMAR VAZQUEZ
M^a PILAR VILLAR MATA

Itzulpena:

MARI LO TRIGO SABANDO

Gauza berri bezala, euskarak dituen ezaugarrietara egin diren moldaketak aipa ditzazkegu, fonetika eta gramatika estruktura desberdina duen hizkuntza bezala.

Euskararen berezitasunen moldaketak:

MIREIA ARREGI eta ORO SAEZ RUIZ DE OLANO

Koordinaketa:

PEDRO I. GONZALO-BILBAO FERNANDEZ

Ikuskapena:

JASONE AGIRRE UGARTEMENDIA
NEKANE SAGASTUME ETXEBERRIA

Vitoria-Gasteizko P.A.T. 1eko Talde Multiprofesionalen Entzumena eta Hizkuntzaren arduraduna eta Euskara-Normalkuntza teknikaria

AURKEZPENA

Irakaskuntza-jarreraren aldaketa etengabea, metodologi berrikuntza eta gaurkotze profesionalak, dudarik gabe, talde-lana, esperientzia pertsonalen trukaketa, aurreko lanak elkarrekin aztertzea eta irakurketa sakonetan beren oinarria dute.

Guzti honek irakasleen mintegiei, mahai baten inguruan eztabaidatzen aritzen diren profesional kezkatien ohiko eta aldizkako bilerei zentzua ematen die, eguneroko betebeharretan sortzen diren arazoak elkarrekin aztertu eta horiei aurre egiteko daitezkeen irtenbideak irizpide bateratu eta ikerketak aberasturiko ezagupenetik abiatzen direlarik.

Ukaezina izanik hizkuntza bera ondo menperatzeak, alderdi akademikoa alde batera utzirik, eragin zuzena duela izaeraren garapenean, orain, atsegin handiz aurkezten dizuedan lan hau zenbait urtetan zehar, hizkuntza-profesional talde baten laguntza zehatzaz jorratutako lan sekuentzia baten emaitza duzue.

1996ko Irailan

Edurne Gumuzio Añibarro
Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaria

AURKIBIDEA

SARRERA

- 1.- AHO HIZKUNTZA
- 2.- AHO HIZKUNTZAK BETETZEN DITUEN FUNTZIOAK
- 3.- HAURRAREN GARAPEN PSIKOLINGUISTIKOA LEHENBIZIKO URTEAN.
- 4.- NOLA ERRAZTU AHO HIZKUNTZA.
- 5.- AHO HIZKUNTZA HAUR HEZKUNTZAN

HIZKUNTZA IKASKUNTZAREN AURRETIKO PORTAEREN GARAPENA.

- 1.- ARRETAREN LORPENA.
- 2.- IKUS-HARREMAN ETA BEHAKETAREN LORPENA
- 3.- IKUS-BEREIZKETAREN LORPENA.
- 4.- KEINU-IMITAZIOAREN LORPENA.

HIZKUNTZA SUSPERTZEKO IHARDUERA PLANA - I

- 1.-ARNASKETARAKO SARRERA.
- 2.- ENTZUN-PERZEPZIOAREN GARAPENA.
- 3.- ORGANO ARTIKULATORIOEN GARAPENA (Mugikotasuna eta tonua).
- 4.- ARIKETA ARTIKULATORIOAK.
- 5.- ADIERAZPEN JOLASAK.

HIZKUNTZA SUSPERTZEKO IHARDUERA PLANA -II.

- 1.- ARNASKETARAKO SARRERA (Putz egitea).
- 2.-ARNASKETA.
- 3.- ENTZUN-PERZEPZIOAREN GARAPENA.
- 4.- ORGANO ARTIKULATORIOEN GARAPENA (Mugikortasuna eta tonua).
- 5.- ADIERAZPEN JOLASAK.
- 6.- EGITURAKETA GAITASUNAREN GARAPENA (Ulermena).
 - 6.1.-GAUZA ETA PERTSONEN IDENTIFIKAZIOAREN LORPENA
 - 6.2.-AGINTEAK BETETZEAREN LORPENA.
- 7.-EGITURAKETA GAITASUNAREN GARAPENA (Adierazpena).
 - 7.1.a-IZENDATZEKO GAITASUNA GARATU: PERTSONAK, GAUZAK ETA EKINTZAK.
 - 7.1.b-GAI EZBERDINEI BURUZKO HIZTEGIA
 - 7.2.-ESALDIEN BIDEZ BEHAR, NAHI, AGINDU ETA IDEIAK, ADIERAZTEKO GAITASUNA GARATU.
 - 7.3.-GALDERAK ERANTZUTEKO GAITASUNA GARATU.
 - 7.4.-GALDERAK EGITEKO GAITASUNA GARATU.
 - 7.5.-GAUZAK, EKINTZAK ETA IRUDIAK DESKRIBATZEKO, GAITASUNA GARATU.
 - 7.6.-ISTORIO TXO GRAFIKO ZEIN ESPERIENTZIEN AURKEZPENAREN SEKUENTZIAKETARAKO GAITASUNA GARATU

GORPUTZ ERRITMOA

BIBLIOGRAFIA

SARRERA

*** AHO HIZKUNTZA**

*** AHO HIZKUNTZAK BETETZEN DITUEN FUNTZIOAK**

*** HAURRAREN GARAPEN PSIKOLINGUISTIKOA LEHENBIZIKO URTEAN**

*** NOLA ERRAZTU AHO HIZKUNTZA**

*** AHO HIZKUNTZA HAUR HEZKUNTZAN**

AHO HIZKUNTZA

Hitz egiteko gaitasuna gizakia eta beste espezien arteko ezberdintasun nabariena da. Hizkuntzak ideiak, oroitzapenak, ezagupenak, nahiak... , kanporatu eta barneratzea ahalbidetzen du; beste gizon eta emakumeekin zuzenean harremanetan jartzea errazten du, komunikatzeko baliabide nagusia izanik.

Hizkuntza bereganatzeko prozesuaren konplexutasunaz, menperatu ahal izateko martxan jarri beharreko guztiaz gogoeta egin behar da. Hau da: sinbolo-kodea, hiztegia eskuratzea barne, erabiltzen ikastea; hitzen esanahia eta esaldiak eratzeko era egokia ezagutzea; kontzeptuen erabilpena,...etab., eta horretarako baldintza batzuk bete behar dira. Adibidez:

- * *Nerbio-sistemaren heltzea.*
- * *Fonazio-aparatua egoera onean.*
- * *Entzumen-maila nahikoa.*
- * *Gutxieneko adimen maila*
- * *Garapen psikoafektiboa.*
- * *Inguruaren adorea.*
- * *Pertsonarteko harremana*

AHO HIZKUNTZAK BETETZEN DITUEN FUNTZIOAK

Aho hizkuntzak BURU-GARAPEN ETA SOZIALIZAZIO PROZESUAN eragin zuzena du.

HIZKUNTZA ETA BURU-GARAPENA

Hizkuntza eta buru-garapenaren arteko loturaz betidanik eztabaidatu da.

Sistema linguistikoa, inguruarekin erlazionaturik eskuratzeak prozesu mental eta sozialaren garapena errazten du. Hitz prozesu honen oinarria da, errealitatearekin kontaktuan jartzen baitu arreta erak, oroimena, pentsaera, irudimena, orokortzea, abstrakzioa,... sortuz; hizkuntza garrantzizkoa da pentsaeraren garapenean.

Hizkuntza, oroimen eta arretaren artean harreman argia dago, izendatutakoaren ikus eta entzun-bereizketa hobetu, kontzeptuak sailkatzen lagundu, kanpoko mundua barneratu, analisi eta sintesi gaitasuna trebatu eta erabiltzea ahalbidetzen du eta. Rosengardek hizkuntzak oroimen eta perzeptioan eragina duela baieztatzen du: **“Hitzak orokortzen, gauzen ezaugarri adierazgarrienak lotzen eta ezberdintzen laguntzen du; hizkuntza oroitzapen eta informazio pilaketa ahalbidetzen duena da”**.

Giza-jarrera aho hizkuntzan oinarritzen da. Barneko hizkuntza eta kanpotik heltzen denak giza-portaeraren antolaketan, norberaren sentsazio eta sentimenduen ezagupenean, zenbait erantzunen aldaketan laguntzen dute.

Laburbilduz, aho hizkuntzak giza-garapen osoan eragina du eta buru-prozesua zein soziala posible dira horri esker.

HIZKUNTZA ETA SOZIALIZAZIO PROZESUA.

Sozializazio prozesuaren lehenbiziko pausua pertsonarteko harremanetan kokatzen da, hauen menpe egonik hizkuntza eskuratzea. Haurrak hizkuntza ikaskuntzan hasteko estimulazioa behar du; hitz egiten ikasten du baldin eta bere inguruan berari hitz egiten dioten pertsonak badaude, heldua hizkuntza bat ikastera animatuko duen estimulua, eredia izanik.

Haurrak hasiera hasieratik bere inguruko munduarekin komunikatzeko gogoia du eta entzuten dituen hotsak errepikatzen saiatzen da, gogo hori handia ala txikiagoa izanik motibazio eta atsegin mailaren arabera. Txikitatik, haurrari elkarrizketa atsegin zaio, helduekin hitz egin nahi du, ahal duen guztia egiten du entzun diezaioten eta haserretzen da lortzen ez duenean, erantzun guztiak bilatzen ditu eta bere inguruan esaten dena erne aditzen du. Helduak haurrari begira, gertaera hurbiletaz, hitz zehatzak erabiltzen ditu, esaldi labur eta errazak sortuz, eta hau guztia giro afektibo inguraturik, azken hau ahozko komunikazioan oinarritzko eta ezinbesteko elementua delarik.

Haurra eta helduen artean harreman eta komunikaziorik ez dagoenean, komunikatzeko gaitasunen garapena gelditu egiten da; beraz, haurrak hitz egiteko gaitasun biologikoak izateaz gain, inguru sozial egokia behar du, afektibitatea oso garrantzitsua baita hizkuntzaren lorpenean. Komunikatzeko gogoia izatea ala ez, bere inguruko pertsonetikiko (gurasoak) harreman on edo txarren arabera da; afektibitatea egonez gero, helduen mezua arretaz entzuten da, identifikazioa baitago eta beraiek imitatzen eta beraiengandik ikasten saiatzen da; afektibitate falta dagoenean isiltasunean murgil daiteke.

Ikastetxeak hizkuntzaren garapen eta hobekuntzan zer esan handia du, bereziki familian pobreturik dagoenean. Irakasleak ikaskuntza honetan funtsezko papera izango du; era berean, beste haurren eragina erabakigarria izango da.

Eskolako jakintza, iharduera gehienetan, hizkuntzaren menpekoea denez, hizkuntza garatu eta hobetzea ezinbestekoa da.

Sozializazio prozesua

Hizkuntza haurraren sozializazio prozesuan beharrezkoa da inguruan egokitu eta integratzen laguntzen baitio. Haurrak bere inguruko balore, sinismen, iritzi, ohiturak jasotzen ditu eta beragandik itxaroten dena eta besteengandik zer espero dezakeen ikasten hasten da, eta honen arabera egoera bakoitzean moldatzen daki. Eredu kultural hauek aho hizkuntzaren bidez transmititzen dira.

Haur batentzat sozializazio eragileak familia, eskola, senitarteko hurbilak, auzokoak eta komunikabideak dira, familia lehenbiziko eta garrantzitsuena izanik. Lehen arau eta jarrera ereduak familia inguruan jasotzen ditu, bertan nortasunaren egitura eta haurraren gizartearekiko jarrera eta portaera garatzen direlarik.

Ikastetxean hastea sozializazio ibilbidean pausu inportantea da: beste hurrekin eta irakaslearekin harreman aktiboa hasten du. Eskolak funtsezko zeregina du ezagupen eta adimen-ohiturak zein gizartearen baloreak transmitituko baitizkio.

HAURRAREN GARAPEN PSIKOLINGUISTIKOA LEHENBIZIKO URTEAN

Hizkuntzaren garapena bi etapa oso ezberdinetan banatzen da: aurrelinguistika bata eta linguistika edo ahozkoa bestea.

Hasieran haurra keinu eta mugimenduz komunikatzen da arreta bereganatu, erantzun bat lortu edo jarrera bat adierazteko asmoz. Laster, lehen hitzak esan aurretik, helduen hizkuntza beregana zuzentzen direnean ulertzen hasten da. Poliki-poliki, entzuten dituen hotsak errepikatze gogoia azaltzen du: laleo edo balbuzeoen etapa da; honetan haurrak silabak lasaiki igortzen ditu (bor-borra)

ETAPA AURRELINGUISTIKA

LEHEN HILABETEA	BIGARREN HILABETEA	HIRUGARREN HILABETEA
Zaratarekiko sentikortasuna erakusten du. Soinuak bereizten ditu. Negar egiten du. Hots guturalak emititzen ditu. Soinu begiratzearen fasea hasten da. Bizitasun gutxi dauka aurpegian, begirakune goibela, zeharrekoa	Espresioa: begirakune zuzena eta zehatza. Ezagunei begi atseginez egiten die irriparre. Artikulazioa. a,e,u bokalak emititzen ditu Soziabilitatea. hasierako erantzun soziala	Artikulazioa. soinu asko emititzen ditu, marmar eta koloka egiten du. Soziabilitatea. Erantzun soziala ahozko espresioaren bitartez ematen hasten da.
4. ETA 5. HILABETEA	SEIGARREN HILABETEA	ZAZPIGARREN HILABETEA
Espresioa. Aurpegiak gogoberoko egoerak adierazten ditu; arnasa hartu eta barre egin, gogor egiten du. Zarata guztiak adi adi entzuten ditu eta batipat gizakiaren ahotsa. Soziabilitatea. bere kabuz egiten du barre	Artikulazioa. Oihuak eta purrustadak egiten ditu eta bere kabuzko berriketak ere bai. Soziabilitatea: soinuak entzutean burua soinuak datozen tokirantz mugitzen du. Irribarreak egiten ditu eta berriketan aritzen da.	Artikulazioa. Sarritan -mmm- ezpain hotsa emititzen du negar egiten duenean eta silaba askotako bokal hotsak emititzen hasten da. Soziabilitatea. Gizarteko ingurunearekin harremanak dauzka.
ZORTZIGARREN HILABETEA	BEDERATZIGARREN HILABETEA	10.etik URTERA
Artikulazioa. ba, ka eta de moduko silaba bakunak artikulatzen ditu	Artikulazioa. Da-da esaten du edo antzeko zailtasuna duten silabak. Soinuak imitatzen ditu. Ulermena: bere izena entzutean erantzun egiten du	Artikulazioa. ahoko muskulu guztiak erabiltzen ditu. Ulermena. txalo egiten du, agur esaten du, bere izena ulertzen du eta ukapenak ere bai Hiztegia. Lehenengo hitzak ahozkatzen ditu, bat edo bi. Sistematikoki imitatzen du.
HAMABI HILABETE	13-15 HILABETEE	15-18 HILABETEE
Hiztegia. Bi edo hiru hitz ahozkatzen ditu. Ulermena. Erakarri egiten dioten objektuak eskatzen ditu keinuak eta hitzak erabiltzeko. Jostailuak eskatzen zaizkionean erakutsi egiten ditu.	Ulermena. Zenbait objektu izenaz indikatzen ditu Hiztegia. Hiruzpalau hitz ahozkatzen ditu. Haurraren jerga hasten da.	Hiztegia. Bost hitz esaten ditu, bere izena barne dagoela. Behaketa. Liburuekiko lehenengo harremana hasten da. Marrazkiak ukitzen hasten da. Soziabilitatea. “ta-ta” esaten du edo antzerakoa, seinالاتu egiten du eta berriketan aritzen da.
18-21 HILABETE	21 HILABETETIK 2 URTERA	
Ulermena. Galdera asko egiten ditueneko lehenengo adina hasten da, gauzen izena jakin nahi du: Hau zer da? Hiztegia. Hamar bat hitz ahozkatzen ditu: objektuak eta marrazkiak izendatu eta seinalatzen ditu Mintzamena: Esaldiaurrekoaren hasiera da	Ulermena. Hiru aginduri erantzuten die Hiztegia. Hogeitabat hitz Mintzamena. Bi edo hiru hitz konbinatzen ditu bere kabuz, esaldi gramatikalak eginaz Soziabilitatea. Jana eskatzen du. Besteek esaten dituzten azkenengo hitzak maiz errepikatzen ditu.	

ETAPA LINGUISTIKOA EDO AHOZKOA

Etapa honetan arian-arian zabalitzen joango den nahiko ulergarria den hizkuntza menperatzen du. Egia esan, bigarren urtearen amaieran hasten da. Zailtasun batzuk izan arren, fonemak ezberdintzen ditu; “Ecoalia” -hitz bukaerako silaben igortzea- desagertzen da, nahiz eta larritasun uneetan berriro ager daitekeen; entzundako hitzak inguruko gauzekin lotzen ditu; hitzen bat ahozkatzea zaila suertatzen zaionean hitz berriak asmatzen ditu.

BI URTE	BI URTE ETA ERDI	HIRU URTE
<p>Hizkuntza menperatu aurretiko igaroaldia.</p> <p>Artikulazioa. Inguruan duenaren eragina nabarmentzen zaio.</p> <p>Hiztegia. Hirurehundik milara bitarteko hitz, ingurune linguistikoaren arabera.</p> <p>Mintzamena. Zenbait konbinaketa motz eta estereotipatu egiten ditu, oso esaldi konposatu gutxi. Hiru hitz dituzten esaldiak. Esperientzia errazak adierazten ditu.</p> <p>Soziabilitatea. Hizketa komunikabide gisa erabiltzen du. Jerga alde batean uzten du eta norberaz hitz egin behar duenean hirugarren pertsona erabiltzen du.</p> <p>Behaketa. Lamina bateko hiru edo lau irudi izendatzen ditu.</p>	<p>Ulermena. Galdera asko egiten ditueneko bigarren adina. Gauzen zergatia ezagutu nahi du. Ulertu egiten zaio eta berak ere ulertzen die besteei.</p> <p>Mintzamena. Gauzen erabilpena esaten du. Bere izena osorik esaten du.</p> <p>Behaketa. Laminetan bost irudi aipatzen ditu, baina bost baino gehiago identifikatzen ditu.</p> <p>Soziabilitatea. Bere buruaz hitz egin behar duenean, bere izena baino gehiago, izenordea erabiltzen du.</p>	<p>Ulermena. Galderak ulertzen ditu eta erantzun egiten die. Ulertu egiten du eta bapatean emandako bi agindu egiteko gai da.</p> <p>Behaketa. Laminetan adierazitako ekintzak azaltzen ditu. Galdera asko egiten ditueneko adina: gauzen zertarakoa interesatzen zaio eta ematen dizkieten erantzunak berak dituen planteamenduekin bat datozen ikusten du.</p> <p>Hiztegia. Bederatzirehundik mila berrehunera bitarteko hitz.</p> <p>Espresioa. Esaldi konposatuak eta zailak erabiltzen ditu. Hitz jokoekin esperimenduak egiten ditu eta sarritan gramatikako joskerak erabiltzen ditu. Istorioak kontatzerakoan, fikzioa eta errealitatea nahasteko gaitasuna erakusten du.</p> <p>Soziabilitatea. Taldeko monologoa hasten da.</p>
HIRU URTE ETA ERDI	LAU URTE	BOST URTE
<p>Ulermena. Jarraian eginiko bi galderari erantzuteko gai da. Bapateko hiru agindu betetzeko gai da.</p> <p>Behaketa. Lamina batean ezagutzen dituen irudi guztiak izenda ditzake.</p>	<p>Ulermena. Galdera erabilpena burutzen da, nola eta zergatia.</p> <p>Espresioa. Hizkuntzaren haur egoera gaudituz doa. Egitura zaila eta konposatua duten konbinaketa gramatikalak egiten ditu, hamar bat hitz dituen esaldi luzeak osatuaz.</p>	<p>Artikulazioa. Haur izaera desagertu egiten da.</p> <p>Hiztegia. Bi milatik bi mila berrehunera bitarteko hitz.</p> <p>Soziabilitatea. Egozentrismotik sozializaziora igarotzen ari dela erakusten diguten galderak egiten ditu. Sozializazio hori, jakina, berak dituen ikuspuntuek baldintzatuta egongo da.</p>

Oharrak: Ulertu behar dugu aldi bakoitza ez dela zati itxi bat, aurreko aldiarekin harremanetan dagoen eta aurreko aldiak baldintzatuta dagoen zati bat baizik.

Haurrak, hazten den neurrian, bere hurbileko esperientzietatik at dauden gauza eta pertsonetaz hitz egin dezake. Oroimen eta irudimenaren garapenak haurrei bertan ez dauden gauzak edo iragan zein geroko egoerak gogoratzen uzten die. Une honetan abstrakzio, sinbolizazio eta pentsatzeko gaitasunen garapena hasten da.

Zazpi urtekin haurra soinu eta artikulazio guztiak egiteko gai dela kontsideratzen da, noizean behin akats morgologiko eta joskerakoak izan arren. Hamar urte izan arte, ez du lortzen esanahi sinbolikoa harzea ezta hitz esanguratsuak ulertu eta erabiltzea ere.

NOLA ERRAZTU AHO HIZKUNTZA

Aho hizkuntza ikasteak motibazio maila, beste pertsonetikiko harremanak, teknika... behar ditu.

Lehenbiziko hilebeteetan, gurasoek, irribarrez eta keinuz, haurrari gustatzen zaizkion mihi eta ezpainez egiten dituen zaratak onartu behar dituzte, eta bere inguruan dauden gauza zein helduek sortzen dituzten soinuak imitatzea eta bokalizazioak egitera animatu behar dute.

Jolasa hizkuntzaren garapena errazten duen iharduera bat da. Haurrek, jolasten duten bitartean, etengabe hitz egiten dute: “Hizkuntza eta jolasa beti loturik”.

Haurri, hitz egiten hasten denean, hizkuntzarekin jolastea atsegin zaio: soinu eta hitzak desitxuratzeko; ezpainak itxirik ala ahoa zabalik hitz egiten du; hitzak alderantziz esaten ditu. Hau guztiak ahozko hizkuntza bereganatzen laguntzen dio.

Eskola funtsezkoa da hizkuntzaren garapen eta hobekuntzan, batez ere familian pobreturik dagoenetan. Zentzu honetan esan behar da gelaren disziplina, denboraldi batzutan ixilik egotearen beharra, txarra izan litekeela, batez ere lehen adinetan. Haurrei galdetzeko, beren iritzi eta erantzunak emateko denbora emateak komunikazioa erraztuko du.

Hizkuntzaren lorpenarekin zuzen erlazionaturiko arlo batzuk suspertu egin behar dira, hizketaren garapenean eragina duten alde guztiak hartzen baitituzte. Bereziki garrantzitsua da psikomotritzitatea.

Irakasleak ondorengo garatzeko iharduerak burutu beharko ditu:

- * *Gorputz-eskema sentitu eta menperatzea*
- * *Entzun-bereizketa zuzena*
- * *Ikus-bereizketa ona*
- * *Motritzitate fina egokia*
- * *Koordinazio dinamikoa eta oreka ona*
- * *Leku eta denbora-antolaketa*
- * *Begiak eta eskuak koordinatzea*
- * *Aho-aurpegi- motritzitatea (Muskulo fonatorioen estimulazioa eta mugimenduen koordinaketa artikulaziorako)*

Psikomotritzitateaz gain, ezinbestekoa garapen orekaturako, aho hizkuntzarekin zuzenki loturiko zenbait iharduera burutu beharko dira: “narrazioak”, “antzezpen edo rol-joku errazak”, “hitz-jokuak”, “asmakizunak”, “abestiak”, “olerki errazak”,...

Kontuan hartu behar da Haur-eskoletan (0tik 6 urtera) ahozko iharduerak denboraren ehuneko handia hartu behar dutela.

MOTIBAZIOA

Haurra ez badago motibaturik, aurrera egitea zaila du, inolako interesik edo arretarik ez baitu izango.

Irakasleak, hezitzaileak bere esperientzia eta irudimena beharko ditu umea motibatzea lortzeko.

AHO HIZKUNTZA HAUR HEZKUNTZAN

Haur Hezkuntzaren Curriculumean (Haur Hezkuntzaren Curriculumaren Garapenerako Dekretuaren Eranskina 236/1992), Komunikazioa eta Errepresentazioari dagokien Esperientzi Eremuan aipatzen diren lehenbiziko bi Helburu Orokorrek gogora ekartzea garrantzizkoa da:

“ hezkuntz interbentzioak neska-mutila ondoko hauetarako gaituko duten ikas/irakaste prozesu batzuk garatzea du helburutzat:

1.- Sentimendu, nahi eta ideiak adieraztea ahozko mintzairaren bidez, piskanaka ohizko komunikazio testuinguru eta egoera desberdinetara eta solaskide desberdinetara egokituz.

2.- Beste neska-mutilek eta pertsona helduek adierazten dizkioten mezuak eta mugak ulertzea, ahozko mintzaira besteekiko harremanerako bide gisa baloratuz.”

Ondorengo ataletan goian aipatutakoa lortu ahal izateko Hizkuntza Ikaskuntzaren Aurretiko Portaeren Garapenerako helburu, jarraibide eta iharduera batzuk, eta Hizkuntza Suspertzeko Iharduera-Plana aurkezten dira.

Honen bidez, Haur Hezkuntzako Irakaslegoak Komunikazio eremuan lan egiten lagunduko dion tresna ordenatua eskuratzen du eta lan prebentiboa egin ahal izango du, ikasleen artean normalean aurkitu ohi diren hizkuntza-arazo funtzional arinak ekidinez. Era berean, arlo honetan zailtasunak dituzten hezkuntza-premia berezietako ikasleekin aho hizkuntza lantzeko egokia suertatuko da.

HIZKUNTZA IKASKUNTZAREN AURRETIKO PORTAEREN GARAPENA

- * 1.- ARRETAREN LORPENA**
- * 2.- IKUS-HARREMAN ETA BEHAKETAREN LORPENA**
- * 3.- IKUS-BEREIZKETAREN LORPENA**
- * 4.- KEINU-IMITAZIOAREN LORPENA**

HIZKUNTZA IKASKUNTZAREN AURRETIKO PORTAEREN GARAPENA

1. - ARRETAREN LORPENA

1.1.- Haurra 30 segundutan eserita eta erlajaturik geratuko da.

Tresna: haurraren beraren gorputza

Iharduerak:

- Irakaslea eta haurra aurrez aurre eserita.
- Irakasleak haurra aulkian jartzen du eta eskuak magalean jartzen dizkio. Jezarrita egotearren errefortzatu egiten du (laztan batez, musika jarriz, “gusanito” bat emanez,...)
- Apurka apurka errefortzua kentzen joango zaio. Honela jarraituko da umea 30 segundutan zehar inolako errefortzurik gabe, ahozko zein fisikoa, eskuak magalean dituelarik, lasai jezarrita geratu arte
- Hasieran haurrak jarrera mantendu ezin badu, beharrezkoa gerta daiteke irakasleak bere aurrean jarrita haurraren belak bere hanken artean dituelarik, aulkian mantentzea.

1.2.- Haurrak autosustaketa jokaerekin elkartezinak diren mugimenduak egingo ditu, portaera horiek baztertzeko jarrera eta arreta egokiak lortzearren.

Tresnak: anilak sartzeko euskarria, ontzia eta bolak, ahokatzeko egurrezko piezak,...

Iharduerak:

- Autosustaketa jokaera ezberdinak ezagutzeko asmoz, haurrari ariketa tipo batzukeskeintzen zaizkio: anilak euskarrian sartzea, bolatxoak ontzian sartzea, piezak ahokatzea, etab; gehien atsegin zaion ariketa hautatzen da eta errefortzatu egiten zaio. Eta autosustaketa jokaeren behaketa hasten da:
 - * Burua alde batetik bestera mugitzea.
 - * Gorputza kulunkatzea.
 - * Eskuei begiratzea.
 - * Atzamarrak era estereotipatuan mugitzea.
- Jarrera estereotipatua zein den ezagutu ondoren, autosustaketa jokaera bakoitzari dagokion berariazko jarreraren leheneratzea ezartzen da.
 - * Burua kulunkatzen badu, agindu eta eskuko laguntza erabiliz, burua hiru jarrera ezberdinetan mantentzen irakasten zaio: atzerantz, zuzen eta beherantz.
 - * Gorputza bada kulunkatzen duena, lepoak hurrengo bi jarreretan mantentzeko eskatzen zaio: aurrera eta beherantz, eta atzerantz aulkiaren bizkarraldearen kontra, ondo jezarrita.
 - * Eskuei begira badago edo papertxoak ibiltzen baditu, hiru jarrera hauetan eskuak izateko eskatzen zaio: zabalik, besoak gorantz, besoak gurutzean eta gorputz ondoan utzita.
 - * Atzamarrak mugitzen baditu (pilotatxoak eginez,...) bi jarrera hauek eskatzen zaizkio: erpuruak gainerako atzamarretatik bereizturik, eskuak elkartu eta banatzea, bi jarreretan 90°ko angelua mantenduz.
 - * Jarreraren leheneratzea hastean, agindua ematen zaio. Honi jarraitzen ez badio, eskuez laguntzen zaio.

1.3.- Haurrak, ahozko agindu nahiz bestelako laguntzarik gabe, ariketa hasi aurretik irakasleari begiratuko dio.

Tresnak: kotxe bat, txilibitu bat, jostailuak,...

Iharduerak:

- Irakasleak mahai gainean gauza bat ipintzen du eta saio bakoitzaren aurretik esaten du: “Begira iezadazu”, eta itxaroten du. Haurrak begiratzen badio, segidan esaten dio: “Begira hona”, eta gauzetariko bat seinalatzen du. Haurrak gauza horri begiratzen badio berehala erreforzatzen zaio.
- Haurrak “Begira iezadazu” agintearekin, bitan jarraian irakasleari begiratzen dionean, azken honek aginte hori zenbait segundutan atzeratuko du, haurrak , eskatu gabe, begira diezaion.
- Haurrak bost gauza aurkeztu aurretik laguntzarik gabe bost aldiz begiratzen badio, helburua lortuzat har daiteke.

1.4.- Haurrak gauza bati begiratuko dio irakasleak gauza hori seinalatu eta “Begira hona” esatean.

Tresnak: gauza ezberdinak

Iharduerak:

- Irakasleak mahai gainean zerbait jartzen du eta hau seinalatuz “Begiratu hona” esaten dio. Haurrak gauzari begiratzen badio errefortzatu egiten zaio. Erantzuten ez badu edo erantzuna zuzena ez bada, laguntza fisikoa eskaintzen zaio, burua poliki objeturantz zuzenduz edo objektua haurraren aurpegirantz hurbilduz.
- Hemendik aurrera, gauzak banan banan aldatzen dira, haurrak bost objeturi begiratzea lortu arte.

2.- IKUS-HARREMAN ETA BEHAKETAREN LORPENA.

2.1.- Haurrak irakaslearen hitzaren aurrean mugimenduz erantzungo du, irakaslea edonon baina haurrarendik gertu dagoelarik.

Tresnak: txintxirrina, txilinak, musika tresnak, atea jotzea, ahotsa,...

Iharduerak:

- Irakasleak haurrari honelako gauzak esaten dizkio: “Kaixo polit hori, nola zaude laztana?...”, bere izenaz deitzen dio.
- Lehendabizi has daiteke haurraren aurrean eta gero beste edonon, baita umearen atzean ere. Honek erantzutean, erreforzatuko zaio musukatuz, laztanduz, hitz gozoekin, irribarrez,...

2.2.- Haurrak bere belarritik 50zmtara sortutako zarata edo ahotsaren aurrean burua mugituko du.

Tresnak: Txintxirrina, txilinak, musika tresnak,...

Iharduerak:

- Haurraren erlazionatzeko gaitasuna garatzean datza. Honetarako: bere aurrean zenbait soinu atera gehien atsegin zaiona ezagutzearen.
- Soinu horren aurrean erantzun badu, haurraren inguruan mugitzen hasiko da. Bere erantzuna hitz gozoekin errefortzatu. Erantzuten ez badu, laguntza fisiko txiki bat erabil liteke, hitz egiten eta erreforzatzen zaion bitartean, burua eskuez mugitzen zaiolarik.
- Aurrean aipatutakoa ahotsa bakarrik erabiliz burutu ahal da.

2.3.- Haurrak bere izena esan duenarengana mugituko du burua.

Tresna: Ahotsa.

Iharduerak:

- Irakasleak beste kideen artean dagoen haurraren izena esaten du. Haurrak erantzun edo begiratzen ez badio, burua mugitzen ez badu, beregana hurbiltzen da eta zuzenean esaten dio.
- Erantzun nimitzaren aurrean hitz gozo eta laztanduz erreforzatzen zaio.
- Hau lortutzat har daiteke haurrak bere izena entzutean burua horrengana mugitzen badu.

2.4.- Haurra 20 segundutako tartetan , zarata bortitz edo arraroak entzutean asaldatuko da, eta lasai mantenduko da intentsitate normalean sortutako ahots edo hots ezagunen aurrean.

Tresnak: magnetofonia, hots ezberdinak grabaturik dituen zinta, ahotsa...

Iharduerak:

- Haurrari zarata mota ezberdinak integratzen laguntzean datza. Era berean, haurraren erantzun bereizlearen ebaluaketa da.
- Hots hauek aurkezteko era didaktiko bat magnetofoniar grabatzearena izan daiteke. Komenigarria da: hots batetik bestera isilune bat uztea; erdiko intentsitatean jartzea haurrarendik metro erdira. Laztandu, animatu hitzekin asaldatzen bada.
- Helburua lortuko da haurrak erantzun bereizlea ematean.

2.5.- Haurra bere izena “Etorri hona” kontsignarekin esan dionarengana zuzenduko da.

Tresna: Ahotsa

Iharduerak:

- Kontua ez da burua mugitzea, bere izena entzutean erantzutea baizik.
- Haurrak erantzuten ez badu, ahoz zein fisikoki lagundu ahal zaio. Hau da: azalduko zaio hori bere izena dela eta, eskutik helduta, deitu izan zaion lekura eraman.

Ondoren, zegoen lekura bueltatu eta berriro deitu.

- Haurra bere izena entzutean leku konkretu batera, inolako laguntzarik gabe, joatean helburua lortuko da.

2.6.- Haurra begiak estalirik beste kide batek sortutako zaratarantz abiatuko da.

Tresnak: txilibitua, txirula, danborra,...

Iharduerak:

- Haurrak soinua non sortu den aurkitu behar du. Honetarako, haurra beste hurrek osatutako korru baten erdian kokatzen da eta bere aurrean haur bakoitzak tresna bat jotzen du; haurra beregana joaten da eta ikutzen du. Honen ostean, haurrari begiak estaltzen zaizkio eta hiru bira emanarazten zaio. Une honetan hasiko dute saioa: haur batek txirula jotzen du eta erdian dagoen haurrari beregana joateko eskatzen zaio.
- Haurra begiak estalirik (edo bizkar emanda) soinua atera duen beste haurarengana joango da animalia baten hotsa imitatuz.
- Haurrak, begiak estalita, bere lagun taldeari jarraituko dio hauek animalien hotsak ateratzen dituzten bitartean.

2.7.- Haurrak narrazioa, kanta, etab. 15 segundutan zehar erne entzungo du.

Tresna: ahotsa

Iharduerak:

- Helburu hau lortu ahal izateko gutxitik gehiagora doan saioa egitea beharrezkoa da. 3 segundutan eta berehalako errefortzuekin hasita, 15 segundutara ailegatu arte. Honela erantzuten ez badu, aukeraturiko entzumen-estimuluak (narrazioa, kanta,...) berrikusi, interesgarriena hautatu ahal izateko. Laguntza fisikoa erabiltzea ere

komenigarria izan daiteke, aurpegia leunki eskuez heldu eta apurka apurka bitartetza hau kenduz.

2.8.- Haurrak irakasleak bere atzean jo duen tresna aurkituko du.

Tresnak: danborra, triangelua, txirula, kaskabiloak, txilibitua, etab. Aldi bakoitzean bi gehienez.

Iharduerak:

- Haur guztiek, saioa izango dena hasi aurretik, bi tresnak jotzen dituzte, behin edo bitan, hotsak ezberdintzeko. (Irakasleak tresnaren izena esaten du). Jarraian bereizketa hasten da. Haurra bizkar emanda jartzen da eta tresna bat jotzen dute. Haurra bueltatzen da eta tresna seinalatzen du.

3.- IKUS-BEREIZKETAREN LORPENA.

3.1. - Haurrak bere ikus-eremuan (35-40zm) mugitzen den zerbaiti (bertikal, horizontalki), begiratuko dio 20 segundutan.

Tresnak: kotxeak, hegazkinak, pilotak, dominak, etab.

Iharduerak:

- Haurrak buruaz, mugitzen den tresnaren bidea jarraitzen du.
- Pixkanaka, gauza bera egingo du baina burua mugitu gabe.
- Helburua lortuzat hartuko da mugimendu hauek bi tresnarekin 20 segundutan zehar egiteko gai bada.

3.2.- Haurrak irakasleak erakutsitako ereduaren koloreko gauzak multzokatuko ditu.

Tresnak: fitxak, paperak, bloke logikoak.

Iharduerak:

- Gauza multzo batetik irakasleak bat aukeratzen du eta bereizten du. Ondoren haurrari gauza horren ondoan kolore berekoak direnak jartzeko eskatzen dio.
- Era berean errepikatu kolore ezberdinekin. Ez da beharrezkoa haurrak beren izenak ezagutzea.

3.3.- Haurrak kategoria berekoak diren objektu berdinak taldekatuko ditu.

Tresnak: egoskariak, fruitu lehorrak, jantziak, bainu-tresnak, gelakoak,...

Iharduerak:

- Gaindituzat har daiteke 5 saiotatik 4tan asmatzen badu.
- Lortzen ez badu, lagundu ahal zaio beste haur batek burututakoaz (antzeraketa)

3.4.- Haurrak gauzak dagozkien irudiekin parekatuko ditu.

Tresnak: frutak, jostailuak, jantziak, etab. , eta beren irudiak.

Iharduerak:

- Gauza bat aurkeztu haurrak bere irudia bila dezan (hiruzpalauren artean).

3.5.- Haurrak objektu kategoria bati dagozkion irudi edo marrazki berdinak multzokatuko ditu.

Tresnak: haurrak ezagutzen dituen objektuen irudiak (kokapen, tamaina, kolore..., ezberdinetan)

Iharduerak:

- Irakasleak haur guztien aurrean irudi multzo batez egin daitezkeen taldekatze guztiak eratu ditu. Jarraian haur bati talde bat egiteko eskatzen dio. Bukatzeko gainerakoei gauza bera eskatzen zaie.
- Helburua lortuzat emango da haurrak bost saiotatik lau multzo ondo burutzen baditu.

4. KEINU-IMITAZIOAREN LORPENA

4.1.- Haurrak honelako ekintza sinpleak imitatuko ditu: txalo jotzea, bere buruan zapladatxoak ematea. Lehenbizi irakasleak burutuko ditu.

Tresnak: ispilua eta bere gorputza

Iharduerak:

- Irakaslea haurren aurrean jartzen da eta txaloak jotzen ditu, eta haurra animatzen du gauza bera egitera; egiten ez badu eskuak hartzen dizkio eta elkarren kontra jotzen ditu, eta erreforzatzen du. Laguntza gutxituko da haurrak imitazioz egin arte. Ondoren, ariketa beste ekintza sinpleekin errepikatzen da: burua ikutzea (ispilua).
- Helburua lortuzat har daiteke haurrak mugimendu hauek, errefortzurik gabe, burutzen dituenean.

4.2.- Haurrak irakasleak aurkezten dion atzamar eta eskuen mugimendu berariazko errepertorioa (10 mugimendu) imitatuko du.

Tresna: bere gorputza

Iharduerak:

- Saioa hastean bakarrik, irakasleak ondorengo aginduko dio: “Egin honela”, lehen ereduak aurkeztu ondoren. Egiten badu erreforzatzen zaio, egiten ez badu laguntza fisikoa eskaintzen dio eta errefortzua. Laguntza fisikoa ahalik eta lasterren gutxituko da.
- Irakasleak ondorengo ereduak aurkezten dizkio:
 - 1- Bi eskuak aurrerantz luzatzen ditu.
 - 2- Bere sudurra bere hatz erakusleaz seinalatzen du.
 - 3- Bere begiak seinalatzen ditu hatz banaz.
 - 4- Esku-azpia bere buruan jartzen du.
 - 5- Atzamarrez bere aho-barrua seinalatzen du.
 - 6- Oinak hatz banaz seinalatzen ditu.
 - 7- Altxatzen da.
 - 8- Jezartzen da.
 - 9- Atzamarrak gorantz seinalatzen du.
- Helburua lortuko da haurra laguntzarik gabe ereduaren %80 burutzeko gai bada.
- Ekintza hauek lagungarriak izango dira aginduak betetzeko orduan.

HIZKUNTZA SUSPERTZEKO IHARDUERA PLANA - I

*** 1.- ARNASKETARAKO SARRERA**

*** 2.- ENTZUN-PERZEPZIOAREN GARAPENA**

*** 3.- ORGANO ARTIKULATORIOEN GARAPENA (Mugikortasuna eta tonua)**

*** 4.- ARIKETA ARTIKULATORIOAK**

*** 5.- ADIERAZPEN JOLASAK**

HIZKUNTZA SUSPERTZEKO IHARDUERA PLANA - I

1.- ARNASKETARAKO SARRERA.

1.1.- Norberaren sudurraz ohartzea.

Tresnak: sudurra eta eskuak.

Iharduerak:

- Irakaslea eta haurrak borobilean jezarrita.
Irakasleak galdetzen du: Ezetz jakin non dagoen sudurra? Hemen!. Bere sudurra leunki ikutzen du eta hurrei gauza bera egiteko eskatzen die. Aztertzen dute... luzea zorrotza da... bi zulo txiki ditu... Atzamarrez astiro ikutzen dugu... kili-kili egiten du (haur bakoitzaren sudurra ferekatzen du) Noski!
Sudurra oso andere fin eta delikatu da, baina oso garrantzitsua; bera gabe ezin dugu arnasarik hartu eta arnastu gabe ezin gara bizi. Orain sudurrekin jolastuko dugu:
 - Pin, pin, pin,... esanez, zaplaztatutxoak sudurrean eman.
 - Hatz erakusleez sudurzuloak txandaka estali eta esan kuak, kuak, kuak,.
 - Lurra sudurraz ikutu
 - Mahaia sudurraz ukitu
 - Ispilu baten aurrean, hatz-margoz sudurra margotu
 - Honelako beste ariketak.

1.2.- Lagunen sudurrez ohartu eta esperimentatzea.

Tresnak: sudurra, eskuak eta aurpegia.

Iharduerak:

- Haurrak bikoteka aurrez aurre jarrita. Irakasleak galdetzen du: Non dauka sudurra zuen lagunak?. Elkarrengana hurbildu eta begiratu arretaz zuen lagunaren sudurrari. Ferekatu leunki. Orain badakizue non dagoen, beraz, gnomoetan jolastu ahal izango dugu.
- Eskuak atzean. Sudurrak topatu gnomoen agurren bezala.
- Lagunaren sudurra margotu.
- Txandaka norbera eta lagunaren sudurra ikutu: nire sudurra, zure sudurra,...

1.3.- Norberaren sudurraren irudia hautematea.

Tresnak: sudurra eta ispilu handi bat.

Iharduerak:

- Denok zutik ispiluaren aurrean.
- Non dago sudurra? Ikutu egingo dugu. Orain sudurra ispiluan ikusiko dugu eta bertan ukituko dugu.
- Denok ispilua sudurraz ikutzen dute; ispiluaren hoztasuna nabaritu
- Atzamarrak pintza moduan jarrita, ispiluaren aurrean sudurra estali eta desestali kuak, kuak, kuak,... esanez.

1.4.- Sudurraren arnasketarako balioa sentitzea.

Tresnak: sudurra eta poltsikoko ispilutxoak.

Iharduerak:

- Irakaslea eta haurrak borobilean jezarrita.
- Irakasleak esaten du: Sudurra gauza askotarako balio du... baina, bereziki, gure gorputzean airea sartu eta ateratzeko... hau da: arnasa hartzeko.
- Haur bakoitzak arnasa hartuko du ahoa itxirik (sudurretatik) eta oso astiro ispiluaren gainean askatuko du. Zer gertatzen da? Bai, ispilua lurrintzen da, honek adierazten du sudurra garbi dugula eta airea erraz atera daitekeela. (Irakaslea hasiko da; beharrezkoa bada, lagundu beren ahoak leunki estaltzen)
- Ispilu lurrinduaren gainean idaz dezakegu.

2.- ENTZUN-PERZEPZIOAREN GARAPENA

2.1.- Bapateko soinu eta zaratak entzuten ikastea.

Tresnak: Ezusteko zarata eta soinuak, ez probokatuak.

Iharduerak:

- Irakaslea eta haurrak borobilean jezarrita.
- Irakasleak, ahots eztiz, esaten du: Une batez ixilik eta adi egongo gara (eskuak belarrien atzean ipini)... eskolan zer gertatzen den entzungo dugu...
Lehenbiziko egunetan irakasleak entzuten dituen zaratak azalduko ditu:
Pertsiana bat, kaletik dabilen kotxe bat, eztulak, urratsak,...
- Ondoren haur bakoitzak entzuten duena esango du...

2.2.- Eragindako zaratak entzuten ikastea.

Tresnak: arkatza, klariona, dadoak, estalkia, harea.

Iharduerak:

- Irakaslea eta haurrak mahai inguruan jezarrita.
- Irakasleak esaten du: Gaur isiltasunaren jolasean arituko gara, baina erne egon nik zaratak sortuko ditut eta.
- Mahai gainean erortzen den arkatza.
- Klariona arbelean idaztean.
- Atzamarrez kriskitinak egin.
- Hormaren kontra estalki batez emandako kolpetxoak.
- Harea edalontzi batetik bestera pasatu.
- Bi soinurekin bakarrik hasi, haur bakoitzari egiteko eskatu... , begiak estalirik ezagutzean, beste soinu batzuk sortzen joan.

2.3.- Gauza soinudunen bilduma egitea.

Tresnak: Haurrek (eta irakasleak) ekar ditzaketen gauza guztiak.

Iharduerak:

- Erortzerakoan, bata besteari kontra topo egiterakoan, putz egiterakoan, herrestatzerakoan, zimurtzerakoan,... gauzek sortzen duten soinua entzun. (irizpide baliogarri bati jarraituz, sailkapenak egin daitezke). Erortzerakoan zarata ateratzen dutenak; putz egiterakoan...

2.4.- Bere gorputzaz hotsak sortzea.

Tresnak: haurren beraren gorputza: eskuak, ahoa, etab.

Iharduerak:

- Txaloak, zapladak gorputzaren zenbait ataletan, ostikadak, orpokadak (takoiz jotzea), jauziak, ahoaz ateratako zaratak.... hurrei zaratak sortzeko eskatu.

2.5.- Haur baten ahotsa irakaslearenetik bereiztea.

Tresnak: haurren eta irakaslearen ahotsak.

Iharduerak:

- Haurrak bizkar emanda. Irakaslea eta haur bat atzean jartzen dira. Hauetariko batek "aita" esaten du, edo erraza den beste edozein hitz, eta gainerako hurrek bereiztu behar dute entzun duten ahotsa irakasle ala haurarena den.

3.- ORGANO ARTIKULATORIOEN GARAPENA (Mugikortasuna eta tonua)

3.1.- Mihi-mugikortasuna (hedadura)

Tresnak: ahoa eta mihia.

Iharduera:

- Irakaslea eta haurrak borobilean jezarrita.
- Konturatu al zarete gure aurpegian (irakasleak eskua bere aurpegitik pasatzen du) etxetxo bat dagoela? (unetxo batez ahoan gelditzen da). Bai, jakina, ahoa da, zabaldu!... eta bertan oso andere inportantea bizi da: mihia da. Baina mihia anderea bakarrik egoteaz nekatu eta asperturik dago. Paseo bat ematera aterako al dugu? Bai, ezta? Beno ba, orain mihia ahal dugun guztia aterako dugu eta mugituko dugu beste haurrenak agur ditzan... Ahalik eta gehien ateratzeko eskatu, mugimenduak aske egiten uzteko.
- Azukre apur bat miazkatzea orri batean, eskuan,...

3.2.- Mihi-mugikortasuna menperatzea (mihi-hedadura)

Tresnak: ahoa eta mihia.

Iharduera:

- Borobilean jezarrita.
- Gaur hotz handia egiten du eta mihia anderea bere etxeko leihoraino bakarrik hurbil daiteke, hozteko beldur da eta. Baina muturtxoa ezpainen artetik ateratzen du eta bere lagunak agurtzen ditu (mihi puntaz eginiko mugimendu askeak).

3.3.- Mihi-mugimendu erritmikoak bultzatzea.

Tresnak: ahoa eta mihia

Iharduerak:

- Borobilean jezarrita.
- Gaur haize handia dabil, hala ere, mihia andereak buelta bat ematera atera nahi du; ateratzen da... baina haizeak ikaratzen du eta berriro sartzen da. (Ariketarekin jarraitu: ateratzen da, berriro sartzen da, etab. Zenbait egunetan jarraian landu ezpainak mugitu gabe mihia erritmikoki ahotik atera eta sartzeari lortu arte).
- Irakaslea txaloez balia daiteke erritmoa markatzen laguntzeko.

3.4.- Mihiaren alboetarako mugimenduak bultzatzea.

Tresnak: ahoa, mihia (chupa-chups bat aukeran)

Iharduera:

- Mihia andereak bere balkoitik hautsa erratzea erabaki du. Hautsez beterik zegoen. Guk horretan lagunduko diogu; beraz, ahoa erdi irekirik, mihia pasatuko dugu ezpainetatik alde batetik bestera zenbait alditan.
- Oharra: Motibatzearen, chupa-chups bat pasatu ahal zaie ahoaren alde batetik bestera eta zenbait minututan ahoan sartu gabe miazkatzen utzi ondoren, nahi duten moduan jaten utzi.

4. ARIKETA ARTIKULATORIOAK.

4.1.- /A/ fonemaren artikulazioa sentitzea.

Tresnak: ahoa, ispilua eta txartelak.

Iharduera:

- Arnasa sudurretatik sakonki hartuko dugu eta airea ahotik botako dugu aaa... esanaz.
- Ispiluan aurpegiari begiratzen diogu aaa... esanaz.
- Zer itxura hartzen du gure ahoak?
- /A/ soinua nagusiki duten onomatopeiak: aharrusia, intziria: aaaii aaaii..., arrantza: iaiaaa iaiaaa...
- /A/ marraztuta duen txartel bat erakutsi.
- /A/z hasten diren hitzak errepikatzeko eskatu:
ama, Ane, amama, astoa, atea, agur, ...
- /A/ duten hitzak esateko eskatu.

4.2.- /U/ fonemaren artikulazioa sentitzea.

Tresnak: ahoa, ispilua, txartelak.

Iharduera:

- Arnasa sudurretatik sakonki hartuko dugu eta airea ahotik botako dugu /U/ ahoskatuz.
- Orain ispiluan gure buruari begiratzen diogu /U/ esaten dugun bitartean. Zer aurpegi jartzen dugu? Zer itxura hartzen du gure ahoak? eta gure ezpainen?
- Gure aurpegia uuu... esaten marraztuko dugu.
- /U/ soinua nagusiki duten onomatopeiak: Izutu nahi duen mamua imitatzen dugu. Oina zapaldu diotelako kexatzen den umea imitatzen dugu uuuuuii uuuuuii...
- /U/ marrazturik duen txartela erakutsi.
- /U/z hasten diren hitzak errepikatzeko eskatu: ura, uso, usain, uda,...
- /U/ duten hitzak esateko eskatu.

5.- ADIERAZPEN JOLASAK.

5.1.- Gauzak ezagutzea.

Tresnak: gelako jostailuak

Iharduera:

- Borobilean jezarrita, jostailuak erdian. Irakasleak jostailuak banan banan hartzen dituen neurrian izendatzen ditu; ondoren, irakasleak galdetzen du: Nork emango dit pilota?... Non dago pilota?... panpina... kotxea...etab. Saiatu hurrek erantzun dezaten: Tori pilota, Hartu kotxea, etab.

5.2.- Ikus-oroimena garatzea.

Tresnak: jostailuak

Iharduera:

- Jostailuak ibiltzen egon ondoren, esango zaie: Orain begiratu jostailuei, bat izkutatu eta zein den esan beharko didazue eta.
- Zailtzen joan bi eta hiru ere izkutatu arte (haurra horretarako gai dela ikusten badugu)

5.3.- Identifikazio bidez izendatzera ailegatzea.

Tresnak: aurreko egunetan ibili dituzten jostailuak

Iharduera:

- Haurrak borobilean. Irakasleak galdetzen du: Zer da hau?... Hau kotxe bat da.

5.4.- Perzepzio bitartez izendatzera heltzea.

Tresnak: jostailuak marraztuta dituzten txartelak.

Iharduera.

- Txartela bere jostailuarekin zenbait alditan elkartu ondoren, kendu jostailuak eta identifikazio-probak egin txartelekin bakarrik.
- Oharra: Jostailuen izenak ezagutzen dituzten neurrian, beste jostailu edo gauzekin trukatu. Kualitateak sartu: handia, txikia,...; koloreak: gorria, urdina, horia,...; kokaguneak: barruan, kanpoan, goian, behean.

HIZKUNTZA SUSPERTZEKO IHARDUERA PLANA - II

- * 1.- ARNASKETARAKO SARRERA (Putz egitea)**
- * 2.- ARNASKETA**
- * 3.- ENTZUN-PERZEPZIOAREN GARAPENA**
- * 4.- ORGANO ARTIKULATORIOEN GARAPENA (Mugikortasuna eta tonua)**
- * 5.- ADIERAZPEN JOLASAK**
- * 6.- EGITURAKETA GAITASUNAREN GARAPENA (Ulermena)**
 - 6.1.- GAUZA ETA PERTSONEN IDENTIFIKAZIOAREN LORPENA**
 - 6.2.- AGINTEAK BETETZEAREN LORPENA**
- * 7.- EGITURAKETA GAITASUNAREN GARAPENA (Adierazpena)**
 - 7.1.- IZENDATZEKO GAITASUNAREN GARAPENA: PERTSONAK, GAUZAK ETA EKINTZAK**
 - 7.2.- ESALDIEN BIDEZ BEHAR, NAHI, AGINDU ETA IDEIAK ADIERAZTEKO GAITASUNAREN GARAPENA**
 - 7.3.- GALDERAK ERANTZUTEKO GAITASUNAREN GARAPENA**
 - 7.4.- GALDERAK EGITEKO GAITASUNAREN GARAPENA**
 - 7.5.- GAUZAK, EKINTZAK ETA IRUDIAK DESKRIBATZEKO GAITASUNAREN GARAPENA**
 - 7.6.- ISTORIOTXO GRAFIKO ZEIN ESPERIENTZIEN AURKEZPENAREN SEKUENTZIAKETARAKO GAITASUNAREN GARAPENA.**

HIZKUNTZA SUSPERTZEKO IHARDUERA PLANA - II

1.- ARNASKETARAKO SARRERA (PUTZ EGITEA)

1.1.- Mukiak kentzen ikastea.

Tresnak: sudurra eta paperezko zapiak

Iharduerak:

- Irakasleak esaten du: “Joku bat egingo dugu: txandaka sudurzulo bat estaliko dugu”. Irakasleak, kua kua kua abesten duen bitartean, txandaka bere sudurzuloak estaliko ditu erpuru eta hatz-erakusleaz, eta haurrak imitatzerantz animatuko ditu.
- Hurrei zapi bana ematen die; haurrak zapia esku batez hartzen du eta erpuruaz sudurzulo bat estaltzen duen bitartean, bestetik mukiak ateratzen ditu.
- Gauza bera baina beste aldean., irakasleak mukiak zapien biltzen irakasten dion bitartean.

1.2.- Putz egitearen aukeretaz jabetzea.

Tresnak: gorputza, bandera berdea, bandera zuria.

Iharduerak:

- Gaur “putzen guda” antolatuko dugu.
- Hurrek beren txabuzinak kapa moduan jantzen dituzte. Guda hastera doa. Eskuak atzean, gure lagunengana zuzenduko gara; ezin ditugu ikutu, ezta jaurtigairik bota ere. Bakarrik indarrez aurpegian, ilean, lepoan, eskuetan eta bularrean putz egin diezaiekegu. Bandera berdea altxaturik dagoen bitartean, gudan jarraituko dugu, baina bandera zuria agertzean denok, bakearen seinale, eskua edo besarkada bat emango diogu elkarri.

1.3.-Putz egitearen intentsitateaz ohartzea.

Tresnak: ahoa, panderoa eta txirula.

Iharduerak:

- Haur bakoitzak bere eskuak zabaldu eta aho aurrean jartzen ditu. Oso, oso indartsu egingo dugu putz: nabaritzen al duzue haizea eskuen gainetik?’
- Orain putz egingo dugu poliki-poliki: igertzen al duzue haize gozoa eskuen gainetik?
- Orain INDARREZ eta AHULKI putz egingo dugu.
- Panderoa jotzean indar handiz egingo dugu putz, eta txirula entzutean ez tiki putz egingo dugu.

1.4.- Putz egitean ezpainen jarreraz jabetzea.

Tresnak: ezpainak

Iharduerak:

- Gorantz eta beherantz egingo dugu putz.
- Irakasleak hurrei azaltzen die: beheko ezpaina goikoaren gainean jarrita putz egingo dugu. Horrela, oso ondo!. Zer gertatzen da orain? Bai, bai, haur bakoitzak bere kopeta-ilea hegan eginarazten duela. Saia gaitetzen berriro. Ea nork mugitzen duen gehiago bere alkondara?

1.5.- Putz egitearen instrumentalizazioaz ohartzea.

Tresnak: txilibituak eta tronpetak (edo bestelako haize-instrumentuak)

Iharduerak:

- Haize-instrumentuak jotzea.
- Irakasleak haur batzuei txilibituak banatuko dizkie; hauek has daitezke jotzen besteek entzuten duten bitartean.
- Orain besteei tronpetatxoak banatzen dizkie. Hauek jo eta besteek entzun egiten dute.
- Baina erne, kolpe bat jotzean denok isildu behar dira.
- Oso ondo! Orain kontzertu txiki bat antola dezakegu: nik txilibitua altxatzean, txilibitua daukaten haurrek jotzen dute, eta tronpeta altxatzean tronpeta daukatenean. Biak altxatzerakoan denok joko duzue, eta biak jeisten ditudanean denok isilduko zarete, denok isilik geratuko gara.

1.6.- Putz egitearen indarraz ohartzea.

Tresnak: konfetiak edo zulagailuz eginiko paper zatiak.

Iharduerak:

- Paperen gainean putz egitea. Haurra bere mahai aurrean, eskuak atzean dituelarik, jartzen da. Mahai gainean papertxoak sakabanatzen dira. Seinale batez, haurrak papertxoetan putz egiten du mahaia garbi utzi arte.

1.7.- Putz egitearen indarra eta objektuaren abiadura lotzea.

Tresnak: haize-errotatxoak eta aire-serpentinak.

Iharduerak.

- Haize-errotatxoak edo aire-serpentinak martxan jarri.
- Haurrek haize-errotatxo edo aire-serpentina bana daukate.
- Putz eginez martxan jarriko dugu.
- Orain haize handia sortuz putz egingo dugu eta haize-errotatxo zein azkar dabilen ikusiko dugu.
- Orain, astiro astiro haize gutxiz mugiaraziko dugu. Ikusten duzue zein motel doan?
- Badakizue, haizea indartsua bada, nola dabil haize-errotatxo?... eta haizea geldia bada (egin), nola dabil?

1.8.- Putz egitearen erritmoaz jabetzea.

Tresnak: lumatxoak

Iharduerak:

- Zerbait arina airean mantendu.
- Irakasleak haurrei koloretako lumatxoak erakusten dizkie eta airera botatzen ditu haurrek lumatxoak erori aurretik hemendik harantz mugitzen direla ikus dezaten.
- Kontua da lumatxo bana hartzea eta berarekin jolastea. Putz eginez lurrera ez heltzen saiaturiko dira, ahalik eta gehien airean mantentzen.

1.9.- Putz egitearen norabidezkotatasunaz ohartzea.

Tresnak: pegatinak

Iharduerak:

- Paper baten ibilbidea putz eginez jarraitu.
- Irakasleak hurrei esaten die: Pegatina bana oparituko dizuet. Hori da. Bakoitzak bereari papera kentzen dio eta alkandoran itsasten du. Eta zer egingo dugu papertxoaz? Ondo, gure aurrean dagoen mahaikideari bidaliko diogu astiro mugituz. Ea nork lortzen duen!

1.10.- Putz egitearen heltze egokia ebaluatzea.

Tresnak: puxikak.

Iharduerak:

- Puxikak puztuko ditugu.
- Umeez puxika bana puztu ahal izango dute.
- Gero airera bota eta beren gainean putz eginez jolastuko dute.
- Puxika puztea lortzen ez duten umeez ez dute oraindik putz egiteko behar duten menperatzea. Honelako kasuetan airea non galtzen den begiratu behar da: aurrealdean, alboetan; eta mihiaren zein mugimenduk oztopatzen duen: butxadurak, biguntasunak,... honela lagundu ahal izango zaie puxika puzten.

PUTZ EGITEAREN HELTzea LORTZEKO IHARDUEREN GEHITZEA

- Kandelan putz egitea garra itzaltzen saiatuz.
- Kandelan putz egitea garra dantzan jartzeko ahaleginak eginez.
- Teilatu ildaskatu edo plastilinazko bide batetik ping-pong pilotan putz egitea hau azkar mugiarazten ahaleginduz.
- Xaboi-uratan lastotxo batez putz egin eta burbuilak egitea.
- Xaboi-burbuilak egiteko putz egitea.
- Mahai gainean arroz-bihia jarri eta lastotxo batez putz egitea.
- Teilatu ildaskatua altxatu eta ping-pong pilota igotzen saiatzea.
- Espirometroaz putz egitea.

2.- ARNASKETA

2.1.- Sabel-arnasketa sentitzea.

Tresnak: gorputza

Iharduerak:

- Arnasa hartzea sabelaldea airez puztuz.
- Haurrak lurrean etzaten dira, ahoz gora, besoak eta zangoak banandu samar dituztelarik.
- Sudurretatik airea sartu eta , aldi berean, sabelaldea puztuko dutela puxika moduan, azalduko zaie; gero, ahotik airea bota eta sabelaldea hustuko dute.
- Honelako arnasketa sentitzeko gai direla ziurtatzeko, irakaslea haur bakoitzarengana hurbilduko da eta eskua sabel gainean jarriko dio, ariketa ondo egiten badu eskua igo eta jeisten dela, eta haurrak berak bere eskuaz nabaritu ahal duela erakutsiz.

2.2.- Sudur-nahikotasuna aztertzea.

Tresnak: sudurra

Iharduerak.

- Airea sudurretatik hartu eta botatzea.
- Haurrari, indibidualki, ahoa itxi eta sudurretatik arnasa hartzeko eskatu, guk erritmoa zenbatuz markatzen dugun bitartean: bat, bat, bi, bi, hiru, hiru..., hogeitarte.
- Errepikatu berriro atzamarrez ezkerreko zuloa estaliz eta eskubikotik bakarrik arnastuz.
- Bukatzeko, hurrengo egun batean, ariketa errepikatu, baina oraingoan eskubiko zuloa estaliz eta ezkerrekotik arnasa hartuz.
- Haurren batek, ahoa zabaldu gabe, 20 aldiz arnasa hartzea lortzen ez badu, honek sudur-eskasia duela adieraziko du. Ariketa hau indibidualki zein talde txikietan burutuko da portaera zehaztasunez behatu ahal izateko.

3.- ENTZUN-PERZEPZIOAREN GARAPENA

3.1.- Inguruko zaratak entzuten ikastea.

Tresnak: ikastetxearen inguruko zarata eta hotsak.

Iharduerak:

- Inguruko zarata eta hotsen barneraketa.
- Ikastetxetik ibilaldira bat egingo dugu zarata eta hotsak entzun eta aditzeko.
 - * Gela baten atean entzun.
 - * Patioko haurrei entzun.
 - * Isilik egon kaleko zaratak entzuteko.
- Orain gelara itzuliko gara: zenbat gauza entzun ditugu?

3.2.- Soinu-ekintzak egiaztatu eta ikus-laguntzaz deskribatzea.

Tresnak. papera, norberaren gorputza, giltzak, mahaia, etab.

Iharduerak:

- Soinuak sortu eta ezagutu.
- Joku hau zertan datzan erakutsiko dizuet: haur batek zarata ateratzen du. Ikusten duzue?, honela, nik egiten dudana bezala: paper bat zimurtu, giltza bat bota, mahaian jo, txalo egin, etab.,... eta bere lagunak zein zarata egin duen esaten du, ados?
- Bikoteka jarri eta hasiko gara: lehendabizi bi haurrek egiten dute besteok begiratzen diegun bitartean. Kontuz!, ezin da zaratarik errepikatu.

3.3.- Soinu-ekintzak egiaztatu eta ikus-laguntzarik gabe deskribatzea.

Tresnak: zenbait gauza eta haurrek asmatutako ekintzak.

Iharduerak:

- Zarataren barneraketa eta bera ezagutu.
- Gogoratzen al duzue aurreko jolasa?. Beno ba, orain zailago egingo dugu. Haurrak, begiak estalirik, bere bikoteak egiten duen zarata deskribatu behar du; asmatzen duen bakoitzean ateraino korrika joango da.

3.4.-Ikus-laguntzaz, hots-iturburu fiinkoa kokatzea.

Tresnak: ahotsak

Iharduerak.

- Ikus-laguntzaz ahotsak ezagutu.
- Haur bakoitzak bere izena esaten du eta bere burua seinatzen du. Alde batetik hasiko gara eta jarraituko dugu; besteok oso erne entzungo dugu. Bere izena esaten duen hauraren ahotsa, nolakoa da?.
- Orain jolasa hasiko duen haurra aterako dugu. Haur honek beste bat seinatzen du eta deitu egiten dio. Azken honek erantzuten du: ni naiz; beste bati deitzen dio eta honela guztiok.

3.5.- Ikus-laguntzarik gabe, hots-iturburu fiinkoa kokatzea.

Tresnak: ahotsak

Iharduerak:

- Ikus-laguntzarik gabe ahotsak ezagutzea.
- Gaur begiak estaliko ditugu.
- Lehenbizi, haur batek estaltzen ditu. Gainerako haurrek animalia baten hotsa imitatzen dute eta begiak estalita dituen haurrak taldea bilatuko du.
- Jolas hau beste era batean egin daiteke: haur bakar batek animalia hotsa imitatuz.

3.6.- Ikus-laguntzaz, hots-iturburu mugikorra kokatu eta bereiztea

Tresnak: haurrak

Iharduerak.

- Hots-ibilbideak trazatu.
- Haur batek gela zeharkatuko du txalo egiten eta oinez zarata ateratzen beste haur batek atzamarraz bere ibilbidea jarraitzen duen bitartean.
- Orain erne, binaka arituko gara eta. Norberak ibilbide bat asmatuko du, baina bere bikoteak zintzoki atzamarraz jarraitu behar izango dio.

3.7.- Ikus-laguntzarik gabe, hots-iturburu mugikorra kokatzea.

Tresnak: haur pare bat.

Iharduerak.

- Ikus-laguntzarik gabe, hots-ibilbideak trazatu eta ezagutu.
- Binaka jartzen gara. Batak bere buruari begiak estaltzen dizkio. Lasterketa hasiko dugu. Besteak hots-ibilbideak asmatzen ditu (korrika egiten, oinez zarata egin eta txalo egiten du). Bere lagunak, begiak estalirik, atzamarrez ibilbidea jarraitu behar du oin eta eskuen zarataren laguntzaz bakarrik.

3.8.- Ikus-laguntzaz, distantzietaz ohartzea.

Tresnak: pilotak

Iharduerak:

- Hurbil-urrun kontzeptuen hots-bereizketa.
- Aldez aurretik psikomotrizitatean kontzeptu hauek landuak eduki behar dituzte.
- Haur bat gelako alde batean jartzen da; beste haur batek pilota bat (baloia) haur horrengandik hurbil botako du; beste batean, beregandik urrun egingo du, gure kontsignaren arabera. Kontsigna hauek oso argi azaldu behar ditugu.

3.9.- Ikus-laguntzarik gabe, distantzietaz ohartzea.

Tresnak: pilota, kaskabuloak, marakak.

Iharduerak:

- Hurbil-urrun kontzeptuen hots-barneraketa.
- Haur bati begiak estaltzen dizkiogu eta klase erdian jartzen dugu. Kide batek marakak dauzka; guk seinalea egitean, marakak jotzen ditu. Erdian dagoen haurrak atzamarrez hotsa non sortu den seinalatu behar du eta esan: "hurbil" ala "urrun". Honela, elkarren segidan, gauza bera errepikatzen da kaskabuloak eta pilotarekin (tresna hauek dauzkaten haurrak leku ezberdinetan kokatuko dira).

3.10.- Ikus-laguntzaz, intentsitateak hautematea.

Tresnak. pilota, ahotsa.

Iharduerak:

- Hots-bereizketa: Ozen-Gozo
- Ahotsaz, era askotan hitz egin dezakegu:
 - * Orain denok oihu egingo dugu.
 - * Orain eztiki hitz egingo dugu.
 - * Orain ahotsik gabe, afoniko bageunde bezala, hitz egingo dugu.
- Oso ondo! Orain nik danborraz “oso zarata ozena” aterako dut; orain “oso gozo” egingo dut.
- Haur bakoitzak, kontsignaren arabera, zarata ozen eta gozoak ateratzen ditu.

3.11.- Ikus-laguntzarik gabe, intentsitateak hautematea.

Tresnak: metalezko poteetan txintxetak eta puxtarriak

Iharduerak:

- Hots-barneraketa: Ozen-Gozo
- Hots-bereizketako lehiaketak antolatuko ditugu. Lehenbizi, entsaiatu egingo dugu. Ea, zein da ozenagoa, txintxetek sortzen duten zarata hau ala puxtarriek potean sortzen dutena?
- Orain pote batzuk dauzkagu. Batean harritxoak daude, beste batean harea eta bestean zerrautsa. Entzungo ditugu eta zera esango dugu: Zein da ozenena? Zein da gozoena?
- Orain zarata hauek sailkatuko ditugu:
 - * Oso ozena (harriak)
 - * Oso gozoa (zerrautsa)

3.12.- Ahoaren aukerak aurkitzea.

Tresnak: haurren ahoa

Iharduerak:

- Aho-soinuak sortu.
- Zuen ustez, zein zarata eta hots egin dezake ahoak? Askok, jakina! Ikus dezagun zenbat:
 - * Putz egin: Egin dezagun putz denok oso,oso indartsu. Eta orain oso,oso astiro. Eskua altxatuko dut eta indarrez egingo dugu; eskua jeitsiko dut eta astiro egingo dugu.
 - * Txistu egin: nork daki txistukatzen? Txistu egiten ikasiko dugu ezpainak luzatuz eta beraien tartetik airea ateraz.
 - * Abestu: Hori da, denon artean kanta bat abestuko dugu. Zein nahi duzue? ba, hor duzue. Ondo ikasteko, astiro abestuko dugu.
 - * Hitz egin: denok dakigu hitz egiten, ez da hala?, baina orain bakoitzak zerbait pentsatuko du eta gero, banan banan, pentsatu duguna kontatuko dugu.
 - * Eztul egin: ea nork egiten duen eztul indartsuen, hoztuta bageunde moduan. Orain, ea nork egiten duen eztul astiroen. Hori bai, eztul egitean eskua aho aurrean jarri behar dugu besteak ez molestatzeko.
 - * Barre egin: ahoak ba al daki barre egiten ere? Noski. Froga dezagun. Nahi al duzue bokalekin barre egin? ea ba: *aaaahhhh, eeeehhhh, jijijiji, jojojojo, uuuuhhhh*

3.13.- Onomatopeiak gauzatzen hastea.

Tresnak: ahotsa

Iharduerak:

- Entzundako soinuak erreproduzitu.
- Hegazkin eta trenetan jolastuko dugu, prest?
- Besoak hegazkinen hegoak bezala luzatuko ditugu eta klasean zehar mugituko gara, aireratu eta hegaz egiten, hegazkinen zarata imitatzen dugun bitartean:
SZSZSZSZNNNNNIIINNNNNNSZSZSZSZSZSZ. Hau guztia musika entzuten delarik.
- Baina musika gelditzen da, hegazkinak espazioan galdu dira.
- Trenez joatea besterik ez zaigu geratzen. Tren bat egingo dugu: lerro bat osatzen dugu eta gerritik heltzen diogu elkarri. Trena martxan jartzen da: txoko, txoko, txoko, txoko,...

3.14.- Onomatopeien gauzaketa finkatzea.

Tresnak: haurraren gorputza

Iharduerak:

- Soinuak imitatu.
- Kaletik igarotzen diren gauzak antzeztuko ditugu: Trafikozaina den haurrak txilibitua jotzen du: *PIII, PIII,..*
- Bospalau hurrek kotxearena egiten dute eta klaxona jotzen dute: *MOK, MOK, MOK...*,
- Bi hurrek anbulantziako sirena egiten dute: *LALALALA...*
- Beste talde bat motozikletaz doa eta, gidatzen dutenaren itxura egiten duten bitartean, ezpainen bibrazioez hotsak sortzen dituzte: *BRRRUUMMM...*
- Haur bat, bolante aurrean aulki batean jezarrita eta motorearen abioaren hotsak imitatuz, kotxea martxan jartzen saiatzen da: *RRR, RRR...*; baina hamabiak dira kaleko erlojuan: *TIN, TIN...*, eta gero hots guztiak eten behar dira.

3.15.- Onomatopeien gauzaketa bermatzea.

Tresnak: haurraren gorputza.

Iharduerak:

- Hotsak imitatu.
- Denon artean kanpaien ipuina asmatuko dugu. Jai egun batean, herri txiki batean, kanpai guztiak jotzen hasi ziren. Dorreko kanpai handiak.

4.- ORGANO ARTIKULATORIOEN GARAPENA (mugikortasuna eta tonua)

4.1. Mihi-orekari laguntzea.

Tresnak: ahoa eta mihia

Iharduerak:

- Laguntzarik gabe, mihia gelditu.
- Mihia anderea zirkura joan zen eta praktikatu nahi dituen oreka-ariketa asko ikasi zituen. Ez pentsa oso errazak direnik, baina bera oso ausarta da.
- Ahoa zabaldu, mihia bertatik astiro ateratzen da, ahalik eta gehien luzatu, une batzutan gelditu, dar-dar egin gabe, eta ahora bueltatzen da poliki hortzak ikutu barik. Primeran, artista handia da eta lortu egin du!.

4.2.- Mihi-oreka goranzko mugimenduz laguntzea.

Tresnak: ahoa eta mihia

Iharduerak.

- Mihi-oreka goiko euskarriz.
- Eta orain, zailago oraindik! Mihiak sudurra ikutu nahi du, lortuko ote du? Saia gaitezen
- Sudurra ikutzean une batzutan geldituko da oreka mantenduz. Gero, ahora itzuliko da eta bere balentria biziki txalotuko dugu

4.3.- Mihi-oreka beheranzko mugimenduz laguntzea.

Tresnak: ahoa eta mihia

Iharduerak:

- Mihi-oreka beheko euskarriz.
- Baina mihi hau oso da ausarta. Zirkuan beste oreka-ariketa bat ikasi zuen: kokotsa ikutzea. Utz diezaiogun egiten: lortuko du, seguru!.
- Ahotik atera, kokospetik kokotsaren ertzearaino jeisten da. Lortu du!. Txalo beroa merezi du, ezta?

4.4.- Mihi-tonizitatea sustatzea.

Tresnak: ahoa eta mihia

Iharduerak.

- Mihiaren kokapen zuzena.
- Mihia anderea oso, oso nekatuta dago. Lo egitera joaten utziko diogu.
- Horretarako, ahosabaian etzaten lagunduko diogu, hori da! mihi osoak ahosabaia uki dezan eta mihi-puntak goiko hortzak uki ditzan. Ea nola egiten duzuen! Ondo!ondo!
- Orain, ahoa horrela itxiko dugu: hortzak, ezpainak; eta mahai gainean jarriko gara atsedentxo bat hartzeko.

4.5.-Mihiaren tentsio-erlax aukera laguntzea.

Tresnak: hortzak, mihia

Iharduerak:

- Mihi-elastikotasuna frogatu.
- Gure mihiarekin hainbeste ibili ondoren, oso biguna dela konturatu da. Horregatik oso zaintzaile sendo eta gogorrek babesten dute: hortzak. Hauek mihiari ezerk minik eman ez diezaion zaintzen dute. Baina hortzei mihia zein biguna den ikusteko laguntza eskatzen badiegu, gustora egingo dute.
- Begira, hortzek oso astiro mihi-punta hozkatzen dute, gero erdian eta azkenean atzean. Zein biguna den, ezta!

4.6.- Mihi-mugimenduen kontrol tonikoa sustatzea.

Tresnak. hortzak, mihia

Iharduera:

- Mihi-mugimendu erdizirkularrak goiko hortzetatik.
- Hortzak mihiaren lagunak dira, horrexegatik mihia andereak bisita egiten die: poliki, beren gainetik, ferekatzen.
- Gaur goiko pisuko hortzak bisitatzera joan da: Egun on! Kaixo mihia anderea. Pasa, pasa zaitetz. Eta mihiak bere puntatxoa alde bateko aginetatik, aurreko hortz eta beste aldekoetatik pasatzen du.
- Gero joan eta etorri egiten du zenbait alditan. Etxetik behin ateraz gero aukera ondo aprobetxatu behar da.

4.7.- Mihi-sentimena nabaritzea.

Tresnak: hortzak, mihia

Iharduerak:

- Mihi-mugimendu erdizirkularrak beheko hortzetatik.
- Gaur mihia andereak beheko solairuko hortzak bisitatzera erabaki du.
- Hasteko kolpetxoak ematen ditu aginetan, apurtxo bat itxaroten du eta, azkenean! zabaltzen diote. Arratsalde on! Kaixo mihia anderea, zure zain geunden. Eta mihia aginetatik pasatzen da, betortzetatik, aurreko hortzetatik, eta berriro betortz eta aginetatik. Joan eta etorri egiten du, beheko pisutik gehiago kostatu arren, hortzak zorrotzagoak direla iruditzen zaio eta. Baina, lagun minak direnez, ondo pasatzen dute eta gero, gauean, elkarri agurtzen diote.

4.8.- Mihi-indarra sustatzea.

Tresnak. ahosapaia, mihia, ispilua

Iharduerak:

- Ahosapaia ikutuz mugitu.
- Garbiketa eguna heldu da.
- Mihia anderea kalera atera, erratza erosi, bere puntan ondo heldu eta erratzatzen hasten da. Guk ispiluan nola egiten duen ikus dezakegu; edo gure lagunei begiratzuz: punta goiko hortzetan kokatzen du eta indarrez ahosapaitik listua kentzen du hondoraino, eta honela behin, bitan, hiru aldiz,... jakina, oso garbia da! Bukatu duenean, ahoa itxi eta mihiak bere ohetxoan atsedean hartzen du.

4.9.- Erresistentziak mihi-indarrez gainditzea.

Tresnak: mihia, masailezurra.

Iharduerak:

- Masailezur-erresistentzian mihiaz presio egin.
- Mihia anderea parkera joan zen eta gorilarena egiten ikasi zuen, eta orain, zein ondo imitatzen duen!
- Bere masa guztia hortz eta beheko ezpainaren artean jartzen du eta masailezurra mugitzen du. Bai dibertigarria! Esku eta besoez laguntzen badiogu oraindik ere gorilaren antza handiagoa hartuko du. Eta, zer deritzozue gorila edo Tarzan eta tximinotan jolasteari?
- Ba, patiora irten eta egin ahal izango duzue.

4.10.- Mihi-indarra eta bere mugikortasuna parekatzea.

Tresnak: mihia, masailak, gozokiak

Iharduerak:

- Barruko mugimenduak eta aldeetarako lekualdaketak.
- Zer deritzozue? Gozoki bat jaten ari naiz? Bai, jakina, masailan kozkor bat dut, eta orain beste aldera mugitzen dut.
- Nola jakin dezakegu gozoki bat daukadanentz? Ah, noski! ahoa zabalduz. Ondo, eta? Ez, ez daukat ezer. Baina mihia andereak zuek engainatzen lagundu dit.
- Ea zuek ni engainatu ahal nauzuen! Hobeto engainatzen naudenari benetazko gozoki bat emango diot.

4.11.-Mihi-presioa sustatzea.

Tresnak. ezpainak

Iharduerak:

- Ezpainen tentsio eta distentsioak.
- Ba al dakizue zeintzuk diren mihiaren etxeko ateak? Ezpainak dira. Ezpainek gainera oso atezain onak dituzte; hauek nahi ez badute ez da inor sartzen.
- Begira, ezpainak estu-estu hersten ditugu eta atzamar bat beraien artetik pasatzen saiatzen gara: ezin dugu.
- Orain hersteari uzten diogu, lasai geratzen dira, eta atzamarra trankil pasatzen da.

4.12.- Mihi-elastikotasuna sustatzea.

Tresnak: ezpainak, txilinak, ispilua

Iharduerak:

- Ezpainak zabaldu.
- Ezpainekin jolastuko dugu.
- Oso, oso serio gaude. Gure ezpainak elkarrekin daude gure seriotasuna adierazteko. Baina txilina jotzen dute eta guk, bitartean, irri egiten dugu. Txilina gelditzen da eta berriro oso serio geratzen gara.
- Ah! baina jolas honek trukua du: hortzak erakutsi edo txilina gelditzean irri egiten jarraitzen duenak prenda egin beharko du.

4.13.- Ezpainen banaketa sustatzea.

Tresnak: ezpainak

Iharduerak:

- Ezpainen inplosio txikiak.
- Gure lagunek, ezpainek, zaratatxoak ateratzen dakite: adibidez, harrikoan edo ontzian erortzen den tanta imitatzen dakite.
- Begira: ezpainak busti eta poliki banatzen ditugu aire apur bat kanporatuz. Hori da, oso ondo!
- Orain zabaldu eta itxi egiten ditugu oso azkar gauza bera egiten. Ederki!
- Orain begiak itxi eta entzuten badugu, euria ari duela irudituko zaigu.

4.14.- Ezpain-inplosioa sustatzea.

Tresnak: ezpainak

Iharduerak.

- Ezpainen inplosio indartsuak.
- Nork daki musu ematen? denok? Oso ondo!
- Aireari musuak emango dizkiogu, ea nork ematen dituen indartsu eta zaratatsuen!

4.15.- Ezpain-mugikortasuna sustatzea.

Tresnak: ezpainak

Iharduerak:

- Ezpain-tolestura eta zabaltzea.
- Hiru txerritxoen ipuina kontatuko dizuet...
- Eta orain, denok dakigunez zer gertatu zitzairen hiru txerritxoei, beren muturra imitatuko dugu gure ezpainez muturtxoak eginez. Hori da, luzatu ezpainak gorantz sudurra ikutu arte. Oso ondo! Oso txerri barregarriak ditugu gelan!

4.16.- Ezpain-erlaxazioa sustatzea.

Tresnak: ezpainak eta hortzak

Iharduerak:

- Ezpain-masajeak
- Ezpainak nekatuta daude eta atsedean hartzen lagunduko diegu. Ba al dakizue nola? ba hortzez masaje gozoak emanez.
- Lehenbizi, goiko hortzek beheko ezpaina hazkatzen dute.
- Gero, beheko hortzek goiko ezpaina hazkatzen dute. Hau atsedena!

4.17.- Masailezur-mugimenduak sustatzea.

Tresnak: txikleak, hortzak eta masailezurak.

Iharduerak.

- Material biguna murtxikatu.
- Ahoak jakiak jateko balio du.
- Hortzek murtxikatzen dute, masailezurra mugitzen da.
- Gertakari hau ospatzeko, txikle bana oparitutako dizuet eta murtxikatzen dugun bitartean elkarri begiratuko diogu gure aurpegiak ikusteko.
- Denok *ÑAM ÑAM*... egiten dugu, hau goxoa!

4.18.- Masailezur-indarra sustatzea.

Tresnak: sagarra, hortzak, masailezurak

Iharduerak:

- Material gogorra murtxikatu.
- Zer daukat poltsa honetan? nork asmatuko du? Poltsa ikutu nahi al duzue jakiteko zer daukadan? Ondo, ondo! Sagarrak dira. Gogoratzen al duzue aurreko egunean nola murtxikatzen genuen txikleak? Zer aurpegi jartzen genuen? baina horretarako indar gutxi egin behar genuen.
- Gaur aginez sagarra (azenarioa) murtxikatuko dugu eta denok zenbat indar egin behar den ikusiko dugu gure lagunen aurpegietan.

4.19.- Masailezur-mugimendu zuzenez irenketari laguntzea.

Tresnak. “conguito”ak, hortzak, masailezurak

Iharduerak:

- Ahoan materiala desegin.
- Gaur kutxa bat conguito dakart. Baina, kontuz! murtxikatu gabe jan behar dira, ahoan astiro deseginez.
- Amaieran, almendra jan aurretik, murtxikatu ahal izango dugu.

4.20.- Masailezur bakoitzaren mugikortasun eta gelditasuna sentitzea.

Tresnak: eskuak, masailezurak.

Iharduerak:

- Ahoa zabaldu eta ixtea.
- Ba al dakizue murtxikatu, hitz egin, ahoa zabaldu ala ixterakoan bakarrik masailezur bat mugitzen dela?
- Froga dezagun: sudur azpian esku bat jartzen dugu eta ahoa itxi eta zabaldu egiten dugu zenbait alditan, zein masailezur mugitzen da?

5.- ADIERAZPEN JOLASAK.

5.1.-Gorputz eta keinu-adierazpenaren garapena.

Tresnak: ispilua eta norberaren gorputza.

Iharduerak:

- Keinuak egin.
- Onomatopeiak egin imitatzen duten animaliarena eginez.
- Abestiak eta mimika.
- Estatuen jolasa.

5.2.- Erlazionatzearen bidez izendatzera heltzea.

Tresnak: irudien dominoa

Iharduerak:

- Dominoan jolastuko dugu marrazki bina duten txartel hauekin. Bi marrazkietatik bat gutxienez daukan txartela bilatu behar dugu. Honela: etxea etxearekin, ogia ogiarekin,...

5.3.- Entzun-bereizketa bitartez izendatzera heltzea.

Tresnak: haurrak eta irakaslea.

Iharduerak:

- Ea nork dakien:
 - * zeinek egiten duen arrantza honela?astoak
 - * zeinek egiten duen txio honela?..... txitoak
 - * zeinek egiten duen irrintzi honela?.....zaldiak
 - * zeinek jotzen duen kukurru honela? oilarrak
 - * zeinek egiten duen marru honela?.....behiak
 - * zeinek egiten duen txorrotxio honela?.....txoriak
 - * zeinek egiten duen orro honela?.....elefanteak

5.4.- Musika-testuinguru bitartez izendatzera heltzea.

Tresnak: haurrak eta irakaslea; haur-kantak

Iharduerak:

- Izenak pilatzen dituzten abestiak ikasi. Adibidez: “Akerra ikusi dugu”, “Traktore baten gainean”.
- Talde handian abesten dituzten kantak aukeratu.

5.5.- Ekintzen deskribapenaren bidez izendatzera heltzea.

Tresnak: lanbideei buruzko hormirudiak. Lanbide-loteria.

Iharduerak:

- Zenbait egunetan, jarraian, hormirudiak ikusiko dira, lanabesak izendatuz, langile bakoitzak egiten duena imitatuz, “Joxe Mari zapatari”an jolastuz, etab.
- Hormirudiaren aurrean galdetuko zaie: nork mozten du ilea? nork egiten du ogia? nork josten ditu jantziak?

5.6.- Lanbideak imitatzea.

Tresnak: haurrak eta irakaslea

Iharduerak:

- Lanbideak imitatzen jolastuko dugu.
- Irakasleak galdetzen du: zer egiten du arotzak? nola?
- Guk arotzarena egingo dugu.
- Zer egiten du igeltseroak?
- Guk igeltseroarena egingo dugu.
- Zer egiten du dendariak?
- Guk...

5.7.- Gauzen behaketari laguntzea.

Tresnak: saski-naskia

Iharduerak:

- Gelan gauza bitxi, ez ohikoak, haurren arreta dei dezaketenak dituen kaxoi edo kutxa bat egongo da.
- Ikusten al duzue kutxa hau? hemen oso gauza politak aurkituko dituzue; hurbil zaitezke eta jolasteko nahi duzuen har dezakezue, baina bukatzean, gauza guztiak kutxan utziko dituzue.

5.8.- Eraikuntza piezen erabilerari laguntzea.

Tresnak: eraikuntza kutxak

Iharduerak:

- Hau eraikuntzen txokoa da. Ea zer dakizuen egiten pieza hauek erabiliz! Jolas dezakezue eta nahi duzuen egiten saia zaitezke.

5.9.- Kualitateak eta gauzak lotzea (formak eta koloreak ezagutzea)

Tresnak: bloke logikoak

Iharduerak:

- Irakasleak haurrei eskatzen die: nork emango dit karratu bat? eta hirukia?
- Orain ume bakoitzak figura bat eskatzen du eta besteek ematen diote
- Gero haur bakoitzak figura mota bat aukeratzen du libreki jolasteko.
- Orain irakasleak haurren artean figura ezberdinak banatzen ditu eta kolore berekoak direnak eskatzen dizkie.
- Haur bakoitzak besteei kolore batekoak diren figurak eskatzen dizkie.

5.10.- Kualitateak eta gauzak lotzea (tamainak ezagutzea)

Tresnak: sailkatutako jostailu ezberdinak: bloke logikoak, multzoak

Iharduerak:

- Non daude karratu handiak? eta ertainak? eta txikiak?
- Non daude borobil handiak? eta ertainak? eta txikiak?
- Non daude giltza handiak? eta ertainak? eta txikiak?
- Non...?

5.11.- Irudimen-jolasak bultzatzea.

Tresnak: mozorrotzeko jantziak.

Iharduerak:

- Mozorroetan jolastuko dugu.
- Denok, nahi dugun moduan mozorrotuko gara eta mozorroturik patiora jolastera aterako gara.
- Haur bakoitzaren mozorroak adierazten duen ihardueran aritu.

5.12.- Ipuinen kontaketa ahalbideratzea.

Tresnak: mozorroak

Iharduerak:

- Irakasleak ipuin bat asmatuko du eta bertan mozorroturiko haurrek parte hartuko dute.
- Astero haur talde batek ipuin bat, gehien gustatzen zaiena, antzeztuko du. Zein taldek hasi nahi du gaur?

5.13.- Antzeppen-jolasa garatzea.

Tresnak: haurrak

Iharduerak:

- Eguzkitara atera eta gauean izkututzen diren loreena egingo dugu (musikaz lagundu).

5.14.- Antzeppen jolasa garatzea.

Tresnak: haurrak

Iharduerak:

- Tortila bat egingo dugu. Nork daki zenbat gauza egin behar diren?
- Arrautza apurtu, platerean bota, sardeska hartu, arrautza irabiatu, zartaginean bota, sardeskaz buelta eman, airera bota, zartagineatik platerera atera... eta jan egiten da.

5.15.- Bizi izandako prozesuak antzezteak.

Tresnak: haurrak

Iharduerak:

- Goizero ikastetxera joaten den haurren istorioa antzeztuko dugu.
- Bere amak/aitak altxatzeko deitzen du.
- Altxatzen da.
- Janzten da.
- Gosaltzen du.
- Ikastetxera joaten da.

5.16.- Kontatutako prozesuak antzezteak.

Tresnak: haurrak

Iharduerak:

- Istorio bat kontatuko dugu.
- Beruneko soldadua eta dantzariaren istorioa antzeztuko dugu.
- Jostailu denda gauez piztu egiten da.
- Soldadua dantzariarekin dantza egitea erabakitzen du.
- Haizete handiak jostailuak herrestatzen ditu.
- Dantzaria hodei baterantz eramana da.
- Soldadua beheko sutara erortzen da eta bihotz formaz desegiten da.

5.17.- Telebistan behatutako prozesuak antzezteak.

Tresnak: haurrak

Iharduerak:

-eta.....ren istorioa antzeztuko dugu.
- Goazen bada...!

6. EGITURAKETA GAITASUNAREN GARAPENA (ULERMENA)

6.1.- Gauza eta pertsonen identifikazioaren lorpena

6.1.1.- Haurrak bi gauzen artean izendaturikoa hartuko du “Emaidazu” agintea entzutean.

Tresnak: haurrari ezagunak zaizkion gauzak

Iharduerak:

- Irakasleak haurrari bi gauzak, bata bestearen segidan, erakusten dizkio “hau...da” esanez eta bere aurrean utziz.
- Ondoren, bietatik bat eskatzen dio “emaidazu” esanez. Ez egin inolako keinurik gauza adierazteko.
- Poliki-poliki gauza kopurua gehitu; galdera alda daiteke: “non dago...?”. Asmatzen duen bakoitzean erreforzatzen zaio.(komenigarria da hasieran gauzak oso ezberdinak izatea)
- Gauzen kokapena aldatu , alde batean, erdian, etab.
- Ondo erantzun ondoren gauzarekin jolasten utzi.

6.1.2.- Irakasleak “Ikutu atzamarrez...”, “seinala ezazu...” esatean, haurrak gauza horren irudi edo argazkia seinalatuko du.

Tresnak: irudiak eta argazkiak

Iharduerak.

- Haurrari multzo bat osatzen duten irudi ezberdinak edo txartel zein argazki ezberdinak aurkeztu eta hurrengo kontsigna eman: “Ikutu, seinalatu...”. Komenigarria da, saioarekin hasi aurretik, irakasleak haurraren aurrean irudi bakoitzaren izena esatea. “Hau... baten argazkia da”.
- Irudi ezagun eta arruntak aurkeztu.
- Gauza ezberdinen irudiak.
- Haurrak asmatzen duenetan goratu.
- Asmatu ondoren irudiari begiratu edo berarekin jolasten utzi.

6.1.3.- Haurrak bere burua identifikatuko du eta argazkian bere familia edo gelakideak seinalatuko ditu.

Tresnak: familia argazkiak eta gelakoak.

Iharduerak:

- Irakasleak gelako haurrei argazkia aterako die (edo taldekideena) denok lehen planoan egon daitezten saiatuz.
- Haurrei beren etxearen argazkiak (guztiona zein kide bakoitzarena) ekartzeko eskatu.
- Argazkia haurraren aurrean jarrita ondorengoak galdetzen zaio: non dago...? seinalatu..., emaidazu...
- Asmatzen duenetan goratu.
- Garrantzitsua da beti kode bera erabiltzea: aita, ama, zure anaia/neba... edo beren izenak.

6.1.4.- Haurrak, irakasleak “non dago... jaten?” galdetzean, irudietan iharduera seinalatuko du.

Tresnak: irudiak, argazkiak

Iharduerak:

- Irakasleak iharduera batzuen irudiak banan banan aurkeztuko dizkio haurrari esanez: Hemen... jaten ari dira, etab.
- Jarraian, irudiak haurraren aurrean jartzen ditu eta galdetzen dio: nor ari da jaten?
- Komenigarria da iharduera errazak eta ezagunak izatea: pertsonak jolasten, jaten, dutxa hartzen...; honelako egoerak ere aurkez daitezke: lotan, jezarrita, korrika egiten,...

6.1.5.- Irakasleak galdetzean, haurrak jantziak seinalatuko ditu.

Tresnak: jantziak

Iharduerak:

- Irakasleak haurraren jantziak hartuz, bere aurrean jantzi bakoitzaren izena esaten du.
- Ondoren galdetzen dio: zein da alkondara? prakak? jertsea?
- Haurrak asmatzean irakasleak erreforzatuko du.
- Bi jantziarekin hasi eta poliki-poliki gehitzen joan.
- Jantziekin helburua lorturik, irudiekin hasiko da.

6.1.6.- Irakasleak eskatzean, haurrak bere gorputzaren bost atal nagusiak seinalatuko ditu.

Tresnak: bere gorputza eta ispilua.

Iharduerak:

- Irakasleak seinalatzen dituen neurrian, gorputzaren atal nagusiak izendatzen ditu: burua, besoak, zangoak, gorputz-enborra, lepoa.
- Ondoren, haurrari galdetzen dio: non duzu...?
- Asmatzen duen bakoitzean erreforzatu.
- Egiten ez badu, laguntza fisikoa jasotzen du.
- Lehendabizi erakutsi ikusten dituen atalak.
- Banan banan erakutsi, ondo bereganatzen duela ziurtatu hurrengora pasatu aurretik.
- Erakusten ari diren atalekin jolasak egin.
- Gorputz-eskemaren jarraipideei segitu.

6.1.7.- Irakasleak esaten duenaren arabera, haurrak atzamarrez gauzen irudiak seinalatuko ditu.

Tresnak: gauzen irudiak (gauza batena eta gauza berdinenak)

Iharduerak:

- Irakasleak haurra singularra eta pluralaren erabilera trebatzen du. Sagar bat aurkezten du eta esaten du: “sagarra”, hiru edo lau sagar aurkeztu eta esaten du: “sagarrak”.
- Jarraian, mahai gainean gauza bat zein gauza berdinen multzoak jartzen ditu eta eskatzen du: “seinala ezazu...”, “seinala itzazu...”.
- Asmatzen duenetan erreforzatu.
- Gauza zehatzekin hasi, gero singularra eta plurala irudiekin lantzeko.

6.1.8.- Haurrak, begiak estalirik, irakasleak esandako gauza hiruren artean aukeratuko du ukimenaz baliaturik.

Tresnak: frutak, gelako gauzak, jostailuak, jantziak,... aurkezten zaizkion hiru gauzak oso ezberdinak izango dira.

Iharduerak:

- Hasteko haurrari gauzak aurkeztu, izendatu eta ikutu, erabiltzeko eskatu.
- Begiak estalita, gauzak berriro ematen zaizkio, ikutzen utzi eta esaten zaio: “emaidazu...”
- Ezagunak zaizkion gauzak aukeratu.
- Asmatzean goratu.
- Aurkezten zaizkion gauzen kopurua poliki gehitu.
- Aurkezturiko gauzen arteko ezberdintasunak poliki gutxitu.
- Helburua lortu ahal izateko gutxienez hamar gauza bereiztu beharko ditu.

6.1.9.- Haurrak, begiak estalirik, zerbaiten zaporea aukeratuko du.

Tresnak: limoia, gatza, azukrea,...

Iharduerak:

- Aldez aurretik haurrak landuak izango ditu oinarritzko zaporeak: gozoa, gazia, garratza, mikatza. Ez da honekin saiaturik, haurra ikus-laguntzaz zaporeak bereizteko gai izan arte.
- Zaporeak probatzen ditu beren izenak esaten zaizkion neurrian.
- Begiak estali eta probatzen zaio: gatza eta azukrea.
- Edo limoi-ura eta laranja... Esaten zaio: “Froga itzazu zapore hauek eta emaidazu gozoa”.
- Asmatzean erreforatu.
- Bi zaporeekin hasi eta bat eskatu. Beti asmatzen badu joan gehitzen.

6.10.- Haurrak, begiak estalita, zerbait aukeratuko du bere usainaren arabera.

Tresnak: landareak, lurrinak, arraina.

Iharduerak:

- Aldez aurretik, ikus-laguntzaz usainak landu.
- Bizpahiru gauza usaintsu aurkeztu eta esan: “Hau kolonia da. Hartu eta usaindu...”
- Ondoren, begiak estali eta esaten zaio: “Usaindu eta emaidazu kolonia...”
(bereiztuko diren usainez kotoiak bustitzen dira).

6.11.- Irakaslearen kontsignaren arabera, haurrak gauza handi bat ala txiki bat seinalatuko du.

Tresnak: tamaina ezberdinetako gauzak.

Iharduerak:

- Irakasleak eta hurrek patioan gauza ezberdinak bilduko dituzte: makilak, harriak, hostoak,... handiak eta txikiak.
- Irakasleak haurren aurrean gauza handiak eta txikiak bereiztuko ditu.
- Gauza guztiak nahasita, handiak eta txikiak bereizteko eskatzen zaie.
- Haurrari eskatu: “emaidazu gauza handi bat”
- “Emaidazu gauza txiki bat.”

6.12.- Irakaslearen galderaren arabera, haurrak gelako aldeak, benetazko etxeak zein irudietakoak seinalatuko ditu.

Tresnak: gela, etxea, bien irudiak.

Iharduerak.

- Beharrezkoa izango da kontzeptuak, azalpen funtzionalez, eta aldeetako formak lehenago gogoraraztea.
- Landuko diren lekuak irudietan ezagutu aurretik, bisitatuko ditu.
- Galdetuko zaio: non dago sukaldea?
- Asmatzean goratu.

6.2.-Aginteak betetzearen lorpena

6.2.1.Haurrak egiten ari denari utziko dio “Ez” agintea entzutean.

Tresnak: ahotsa

Iharduerak:

- Komenigarria da “ez” hitzak gauzen falta eta ezezko agintea (debekua) adierazten duela ikustaraztea.
- Ez= gabezia. “Ez daukagu gozokirik”, “ez dago Mikel”...
- Beste aldetik, haurrek “ez” ahozko agintea betetzen ikastea beharrezkoa da beren buruari zein besteei kalterik ez egiteko eta gauzak ez hondatzeko.

6.2.2.- Haurrak ekintza-aditzaz adierazitako sei agindu beteko ditu.

Tresnak: irakaslearen ahotsa.

Iharduerak:

- Irakaslea haurren aurrean jartzen da eta ondorengo aginteak ematen dizkio: etorri, eseri, ibili, igaro, joan, margotu, edan, igo, jeitsi, marraztu, egin korrika,...
- Ekintza burutzen duen guztietan erreforzatu behar zaio.

6.2.3.- Ahozko aginduaren arabera, haurrak eguneroko gauzak erabili beharreko ekintzak burutuko ditu.

Tresnak: diruzorroa, boltsa, kotxea, oinetakoak..., haurrak ezagutzen dituen gauzak.

Iharduerak:

- Haurrak ondoren datozen ekintza guztiak burutu behar ditu:
 - . Emaidazu kotxea
 - . Hartu diruzorroa
 - . Jantzi txanoa
- Aditz eta gauzen izen errepertorioa burutzean, eta haurrak betetzeko aginteak ematean datza.
- Erreforzatu haurrak ondo egiten duenetan.
- Helburuak gutxienez hamar aginte betetzea inplikatzeko du.

6.2.4.- Haurrak adjetiboez osaturiko eguneroko gauzak erabili beharreko ekintza batzuk burutuko ditu.

Tresnak: gauza ezagunak

Iharduerak:

- Haurrak ekintza burutu behar du gauza eta bere kalitatea adieraziz.
 - . Hartu kotxe gorria.
- Betetzen laguntzeko, gauzen kalitateak gogorarazi ahal zaizkio hau esanez: “hau kotxe gorri bat da”, “zer da hau?”... honela gauza guztiekin.
- Beharrezkoa da gauzak errepikaturik egotea baina kalitate ezberdinekin: polita, itsusia, koloreak, tamainak, itxurak,...
- Erreforzatu asmatzean.
- Helburua lortzeko gutxienez sei aginte asmatu eta bete behar ditu.

6.2.5.- Ondorengo hitzen bat (gainean, azpian, barruan, ondoan,...) duten ahozko aginteei jarraituz, haurrak gauzak etxeko leku ezberdinetan kokatuko ditu

Tresnak: haurrentzat ezagunak diren gauzak

Iharduerak:

- Gauza ezagunak erabili: bota, kotxea, arkatza,...
- Leku-kontzeptuak gogorarazi esanez: “hau mahai gainean dago, hau azpian dago, hau barruan dago,...”
- Ondoren, aginteak eman:
 - * Jarri arkatza kutxa barruan
 - * Jarri bota aulki azpian
 - * Jarri liburua mahai gainean
 - * Jarri kotxea lurrean
- Asmatzen duenetan erreforzatu.

6.2.6.- Haurrak, ematen zaion agintearen arabera, bere gorputza espazioan (barruan, goian, behean, lurrean, zutik, urrun, kanpoan, hurbil, ondoan,...) mugituko du.

Tresnak: kutxa handia, koloretako zelaia, mahaiak,...

Iharduerak:

- Aurretik, psikomotrizitate saioan aurreko kontzeptuak landuko dira; helburu honetan hitz horien esanahaiaren ulermena bakarrik landu nahi da.
- Komenigarria da aldeztu aurretik irakasleak esaten dituen neurrian ekintza hauek burutzea: “ni kutxa barrura sartzen naiz”, “ni mahai gainean jartzen naiz”,...
- Ondoren, aginteak ematen dira:
 - * Sartu kutxa barrura
 - * Jarri mahai gainean
 - * Begiratu gora
 - * Begiratu beheara
 - * Bota zure burua lurrera
 - * Ibili lerro gainetik
 - * Igaro mahai azpitik
- Haurrak ondo burutu bezain pronto erreforzatu.

6.2.7.- Irakaslearen “Emaidazu....-t(z)eko balio duena” agintearen arabera, haurrak ondorengo kategoriei dagozkien aginteak burutuko ditu: gelako aldeak, jostailuak, jantziak, janariak,...

Tresnak: janariak, jantziak, jostailuak, gelako gauzak.

Iharduerak.

- Hasi kategoria ezberdinetako hiru gauzarekin: aulkia, gona eta sagarra.”Emaidazu jateko balio duena”, “emaidazu jartzeko balio duena”... esaten zaio.
- Poliki-poliki joan gehitzen elementuen kopurua
- Erreforzatu haurrak asmatzean. Askotan huts egiten badu, kontzeptuak gogorarazi esanez: “hau...bat da eta-t(z)eko balio du”

6.2.8.- Haurrak edutezko adjetiboak dituzten aginteak beteko ditu.

Tresnak: jostailuak, gelako gauzak,...

Iharduerak:

- Irakasleak bi gauza hartzen ditu -bata berea eta bestea haurrena- eta berea hartuz esaten du: “hau nirea da”, umearena hartuz “hau zurea da”.
- Ondoren haurrari esaten dio: “Hartu zurea den (gauza), zure (gauza)”
- “Hau nirea den (gauza) da, nire (gauza)”
- Bi termino hauen ulermena ondo menperatzen duenean, hau landuko dugu: “berea, bere..” haurrak ezagutu baina une horretan bertan ez dagoen pertsona baten gauza hartuz. “Emaidazu(r)ena den (gauza), bere (gauza)”
- Beranduago kontzeptuak zabaldu pluralak sartuz: “nireak, bereak, gureak, zureak, zuenak, beraienak...”
- Gorputz-atalak erabiliz egin daiteke: ahoa, oina, eskua,...

6.2.9.- Haurrak adjetibo erakusleak dituzten aginteak beteko ditu.

Tresnak: Jostailuak, gelako gauzak, hostoak, harriak,...

Iharduerak:

- Aldez aurretik, psikomotrizitatean, haurrak ondorengo kontzeptuak landuko ditu: hurbil, urrun, oso hurbil eta oso urrun.
- Irakasleak klasean zehar gauza multzo bat banatzen du eta haurren aurrean, gauzak izendatzen ditu ikutzen dituen heinean: “boligrafo hau”, “boligrafo hori” (besoa nabarmenki luzatuz”, “boligrafo hura” (erregelaz, palaz..ikutuz, “Hura” dela oso urrun dagoelako grafikoki adieraziz... ea ea erregelaz ikutu ezin duelarik). Ezinbestekoa da irakaslea eta haurrak plano berean egotea, gauzetatik distantzia berean.
- Ondoren aginteak esaten ditu:
 - * Emaidazu gozoki hau
 - * Emaidazu arkatz hura
 - * Emaidazu hautsontzi hori.
- Umeei, klasean sakabanaturik, banan banan eskatuko zaie: ikutu haur hau, ikutu haur hori, ikutu ume hura.
- Geroxeago plurala sartuko da.
- Asmatzean erreforzatu.

6.2.10.- Haurrak “jarri” kontsignarekin batera, erlazio-kontzeptuak inplikatzten dituzten mugimenduak egingo ditu.

Tresnak: gelako gauzak

Iharduerak:

- Komenigarria da ekintza azaltzea ume taldea inplikatzuz. Irakasleak esaten du: “Mikelen ondoan jartzen naiz”, “Koldo eta Albertoren artean”. Ondoren aginteak ematen ditu: “Jarri...(r)en ondoan”
- Gauza bera egin daiteke gelako gauza zein irudiekin
- Umea erreforzatu asmatzen duen guztietan
- Azken pausua gauza batzuk beste batzuekin jartzea izango da: “Jarri borragoma arkatz ondoan”

6.2.11.- Haurrak errefusatu eta uko egitea inplikatzten duten aginteak burutuko ditu.

Tresnak: gelako gauzak eta jostailuak

Iharduerak:

- Erabil daitezkeen aditzak: banatu, utzi, laga, kendu, atera, ezabatu,...
- Irakasleak honelako aginteak emango ditu:

- * Irten gelatik
- * Kendu jaka
- * Garbitu arbela
- * Utzi jostailu hori
- Erreforzatu asmatzean.

6.2.12.- Haurrak bi elementu sekuentziaturik duten aginteak zuzen burutuko ditu.

Tresnak: zorroa, esekigailua, paperontzia, aulkia, mahaia, ...

Iharduerak.

- Hasi aginte batekin, eta umea burutzeko gai denean, gehitu bestea.
- Ondorengo aginteak aurkeztu:
 - * Hartu zorroa eta jarri esekigailuan
 - * Hartu arkatza eta jezar zaitez.
 - * Hartu zorroa eta zabaldu.
 - * Bilatu etengailua eta piztu argia.
 - * Hartu ezabagailua eta garbitu arbela

6.2.13.- Haurrak sekuentziaturiko hiru edo aginte gehiago beteko ditu.

Tresnak: gauza ezagunak

Iharduerak

- Gauza errezekin hasi.
 - * Altxatu, joan ispilura eta jo txalo bat.
 - * Hartu zorroa, zabaldu eta sartu zure gauzak barruan.
 - * Hartu arkatza, jarri zure mahaian eta egin fitxa
 - * Hartu klariona, marraztu zuhaitz bat arbelean eta etorri hona
 - * Irten patiora, hartu hosto batzuk eta itsatsi paper honetan.
- Ondo egiten duen guztietan erreforzatu.

6.2.14.- Haurrak denbora eta iraupen-kontzeptuak dituzten aginteak beteko ditu.

Tresnak: arkatza, papera, erlojua, etab.

Iharduerak:

- Irakasleak esaten dituen neurrian mugimendu geldiak, azkarrak, laburrak eta luzeak egingo ditu.
- Agintzen du:
 - * Joan komunera eta etorri azkar
 - * Jan azkar
 - * Jan astiro
 - * Ibili azkar
 - * Ibili astiro.
 - * Irten gelatik denbora apur bat egon.
- Kontzeptu hauek alde zuzenetik motrizitatean landuak izango dituzte. Mugitzen diren gauzak erabili: pilotak, kotxeak,...; kontzeptuaren irudi plastikoa eskainiko diote eta kontzeptua bereganatzen lagunduko diote.

6.2.15.- Haurrak aginte zoroak baztertuko ditu.

Iharduerak:

- Hizkuntzaren aurrean arrazoiak logikoa piztean datza. Agintzen zaien guztia ez dela burugarria ikustarazi behar zaie:

- * Jan aulkia
- * Ibili buruaz
- * Itxi begiak eta begira ieza daz
- * Irten gelatik horma zeharkatuz

6.2.16.- Haurrak entzuten dituen esaldietan zentzugabekeriak aurkituko ditu.

Iharduerak:

- Honelako esaldiak esango zaizkio:
 - * Amamak landareak ardoz ureztatzen ditu
 - * Mirenek liburu handi bat jaten zuen
 - * Armairua oso berritsua zen
 - * Pepek zuhaitzetik gaztak hartzen ditu.
 - * Nik zapatak hortzorez garbitzen ditut.

7.- EGITURAKETA GAITASUNA REN GARAPENA (ADIERAZPENA)

7.1.a- Izendatzeko gaitasuna garatu: pertsonak, gauzak eta ekintzak.

7.1.1.- Haurrak argazkian seinalatzen zaion etxekoaren izena esango du.

Tresnak: argazkiak

Iharduerak:

- Familiari edo haurrari familia zein etxeo bakoitzaren argazkiak ekartzeko eskatu.
- Haurrari argazki bat aurkeztu eta galdetzen zaio: Nor da hau?
- Asmatzean erreforzatu.

7.1.2.- Haurrak galdetzen zaionean bere izena esango du.

- Erreforzatu ondo esaten badu.
- Erantzuten ez badu edo gaizki egiten badu hau esango zaio. “zu..... deitzen zara” errepikatu....” eta berriro galdetu egiten zaio.

7.1.3.- Haurrak gauza ezagun ezberdinak izendatuko ditu.

Tresnak: normalean erabiltzen dituen jostailu eta gauzak

Iharduerak:

- Lurrean gauza batzuk sakabanatzen ditugu: pilotak, edalontzia, oinetakoa, etab. Bat hartzen dugu, erakusten diogu eta esaten dugu: Zer da hau?. Asmatzen badu “bai” esaten diogu eta ondo ospatzen dugu.
- Asmatzen ez badu hau esaten zaio: “.... bat da. Errepikatu”, eta berriro galdetzen zaio.

7.1.4.- Haurrak “Zein da bere izena? “ galdetzean, kideen (talde txikikoak) eta irakaslearen izena esango du.

Tresnak: lan taldea

Iharduerak.

- Irakasleak, haur bat seinalatuz, beste batengana zuzenduko da eta galdetuko dio: “Zein da bere izena?” Asmatzen badu goratu egiten zaio; horrela ez bada, esango zaio: “... deitzen da. Errepikatu”, eta galdera errepikatuko zaio.

7.1.5.- Haurrak bost gorputz-atal izendatuko ditu.

Tresnak: norberaren gorputza

Iharduerak:

- Irakasleak bere gorputz-atal bat ikutuz esaten du: “Hau....burua da; begiak, ahoa, belarriak,...
- Jarraian atal bera ume baten gorputzean seinalatzen du eta galdetzen du: “Nola deitzen da hau?”
- Asmatzen duen guztietan saritu. Asmatzen ez badu honelako laguntzak eman: oina: nik bera erabiliz baloiari ostikada ematen diot.... eta horrelakoak. Esaten ez badu esango zaio eta errepikaraziko zaio.

7.1.6.- Haurrak irudietan aurkeztutako gauzak izendatuko ditu.

Tresnak: gauza ezagunen irudiak

Iharduerak

- Haurrari gauza ezagunen irudiak aurkeztu eta, aldi berean, izendatu: “hau mahai bat da”
- Esaten da: “zer da hau?”. Haurrak erantzuten ez badu, edo gaizki egiten badu, esaten zaio. “hau... bat da”. Haurrak errepikatu egiten du. Beste irudi batzuk aurkezten zaizkio eta denbora pasatu ondoren aurrekoa aurkezten zaio berriro. Beste laguntza mota bat aurreneko silaba ahoskatzea da. Honelako ahozko laguntza gutxitu egin behar da pixkanaka.
- Orokortasunari begira, oso lagungarria suertatzen da gauza beraren imajina ezberdinak aurkeztea: argazkia, marrazkia, zilueta...

7.1.7.- Haurrak ekintzak izendatuko ditu.

Tresnak: ekintzen irudiak

Iharduerak:

- Irakasleak ekintzak aurkezten dituen neurrian egiten ari dena azalduko du eta bere irudia aurkeztuko du.
- Ondoren irudiak banan banan aurkezten zaizkio eta galdetzen zaio: “Zer egiten ari da hemen?”
- Eguneroko bizitzaren ekintzak aukeratuko dira: jatea, lo egitea, garbitzea, norberak bere burua garbitzea, abestea, erostea,...

7.1.8.- Haurrak zarata konkretu bat ateratzen duen animalia edo gauzaren izena esango du.

Tresnak: ahotsa eta hots naturalak dituzten zintak

Iharduerak:

- Entzungo diren hotsak ateratzen dituzten gauza edo animalien irudiekin irakasleak esango du: “hau ... bat da eta honela egiten du...”. Haurrek imitatuko dute.
- Hots horietako bat aurkeztu haurrari eta esan:” Zerk edo nork egiten du hau?”. Asmatzen badu esaten zaio: “Oso ondo. Hau....da”
- Hotsak hauek izan daitezke: etxeko txirrina, zerraila, kikara eta goilaratxoa, liburuaren orriak pasatzen, kotxe bat, kamioi bat, motorra, telefonoa, komuneko tanga, animalien onomatopeiak.

7.1.9.- Haurrak, begiak itxita gauzak ikutu ondoren, izendatuko ditu.

Tresnak: gauza ezagun batzuk: liburua, pilota, platera,...

Iharduerak:

- Aldez aurretik, begiak estalirik, gauzak eman izendatzen diren heinean: “Hau arkatza da. Ikutu”.
- Ondoren, begiak itxirik, gauzak ikutzeko eskatu eta galdetzen zaio: “Zer daukazu orain eskuetan?”. Asmatzen ez badu, gauza erakusten zaio bere izena esanez, eta beranduago, berriro aurkezten zaio.
- Asmatzen badu biziki animatuko zaio.

7.1.10.- Haurrak, begiak estalirik gauzak usaindu ondoren, izendatuko ditu.

Tresnak: gauza eta landare usaintsuak

Iharduerak

- Haurrari izendatuz eta usaintzeko eskainiz substantziak aurkeztu.”Hau limoi bat da. Usaindu”
- Jarraian, begiak estali eta usaintzen utzi. Galdetu: “Zer da hau? Zein usain du?”

7.1.11.- Umeak, begiak estalirik jan ondoren, jakiak izendatuko ditu.

Tresnak: jakiak (gatza, azukrea, patata, sagarra...)

Iharduerak:

- Lehenbizi jaki ezberdinak frogatuko ditu “Hau... da. Frogatu” esaten zaion bitartean.
- Ondoren begiak estali eta frogaraziko zaizkio esanez.: “Zer jan duzu?”

7.1.12.- Haurrak, gauza bat ala batzuk aurkezten zai(zki)on neurrian, gauza eta irudiak singular eta pluralean izendatuko ditu.

Tresnak: Gauza ezagunak eta irudiak

Iharduerak:

- Mota bereko elementuz osaturiko multzoak (batekoak zein batzutakoak) aurkezten zaizkio. Irakasleak seinalatuz esaten du: “hemen sagar bat dago” “hemen sagarrak daude”.
- Ondoren multzoak seinalatu eta haurrari izendatzeko eskatzen zaio singularra (bat) eta plurala (batzuk) bereiztuz.
- Helburua elementuekin lortuz gero, irudiekin lan egingo da.

7.1.13.- Irakasleak “Zer da hau?” galdetzean, haurrak gauza batzuk ondo izendatuko ditu.

Tresnak: Gelako irudi eta benetazko gauzak

Iharduerak:

- Haurrari gelako gauzak -bost gehienez saioko- aurkeztu eta esaten zaio: “hau arbela da”, segidan galdetzen zaio: “zer da hau?”. Haurrak “Hau arbela da” erantzun behar du. Hasteko nahiko izango da “arbela” esatea.
- Honela egingo da aukeraturiko bost gauzekin.
- Saio bakoitza hasi aurretik, aurrekoan landutako hiztegia birpasatuko da. Haurrak galdetzen zaion guztietan ondo erantzungo du.
- Erantzun zuzen bakoitza erreforzatuko dugu.
- Haurrak eskatutako gauzen izenak beti asmatzen baditu, irudietara pasatuko da.
- Gelako gauzak azaltzeko denon artean hormirudia egin. Irudiak aldizkari, publizitate-liburuska, ..., katalogoetatik atera.

Oharra: Elementu bakoitza aurkezterakoan zera esango da: *zer* den, *zertarako* balio duen, *non* jartzen den, *zein* forma, tamaina eta koloretakoa den... Honela gauza horri buruz datu asko izatean, haurrak errezago barneratu eta orokortuko du irudia.

7.1.b-GAI EZBERDINEI BURUZKO HIZTEGIA

(Landu aurkezturiko ereduaren arabera)

Gaia: IKASTETXEA

Hiztegia: gela, mahaia, aulkia, arasa, apala, liburutegia, liburuak, arbela, klariona, ezabagailua, armairua, koadernoak, libretak, arkatzak, punta, zorrozgailua, borragoma, papera, orria, plama, plegu-laurdena, karpeta, albuma, poteak, hizkiak, margoak, pintzelak, arkatz koloredunak, zerak, guraizeak/artaziak, puntzoiak, txintxetak, txarol papera, saskiak, orratzak, artilea, kutxa, pegamentua, kola, irakaslea, andereñoa, maisu/maistra, ikasleak, hurrak/umeak, kideak, lagunak, atsedena, patioa, paperontzia, esku-lanak, gomexak, buztina, espatula, korxoa, marrazkia, kopia, esekigailua, esekitokia, txamusina, boligrafoa, zenbakiak, hormirudiak, zigorra, danborra, pandereta, disko-jogailua, kasetea, triangelua, txirula, bikotea, korrua, ilara/lerroa.

Ekintzak: lan egitea, azaltzea, entzutea, diktatzea, errepikatzea, idaztea, irakurtzea, zenbatzea, marraztea, ezabatzea, kopiatzea, eskegitzea, moztea, plegatzea, tolestea, apurtzea, urratzea, margotzea, iltzatzea, zulatzea, zizatzea, kordatzea, pilatzea, itsastea, modelatzea, oratzea, jolastea, borrokotzea, korrika egitea, oihukatzea, garrasi egitea, jarraitzea, harrapatzea, erortzea, ikutzea, putz egitea, abestea, dantzatzea, antolatzea, sailkatzea, hitz egitea, isiltzea, kontatzea, igotzea, jeistea, sartzea, irtetzea, itxarotea, bultzatzea, eraistea, ematea, jostea, mukiak kentzea, eztegi egitea, usin egitea, aharrausi egitea, jezartzea, altxatzea, etzatea, belaunikatzea, aditza, begiratzea, arreta jartzea, esatea, txalo egitea, imitatzea, negar egitea, barre egitea, sartzea, gelditzea, uztea, multzokatzea, partitzea

Gaia: FAMILIA

Hiztegia: aita, ama, anaia/neba-arreba/ahizpa, aiton-amona, seme-alaba, iloba, izeko-osaba, loba, lehengusu-lehengusina, aitagarreba, aitabitxia, amabitxia, txikiak, gazteak, helduak, koinatu-koinata, amagarreba-aitagarreba, suhia, erraina, haurtxoa, umea, seintxoa, mutiko-neskato, gaztea, gizona, emakumea, auzokoa, jendea, seme-alaba pontekoa.

Ekintzak: besarkatzea, musukatzea, maite izatea, agurtzea, laguntzea, janaria prestatzea, lo egitea, garbitzea, txukuntzea, zaintzea, amets egitea, esnatzea, oheratzea, altxatzea, gaixotzea, estaltzea, epeltzea, lehortzea, orratzea, bainatzea, jostea, puntua egitea, trikotatzea, lisatzea, erratzatzea, ureztatzea, erostea, frijitzea, astintzea, lurrintzea, titia hartzea, sehaskari eragitea, kulunkatzea, irabiatzea, erretzea, harrikoa egitea, atsedean hartzea, paseiatzea.

Gaia: JANTZIA

Hiztegia: alkondara, prakak, gona, soinekoa, jertsea, elastikoa, kuleroak, galtzontziloa, galtzerdiak, galtzak, leotardoak, oinetakoak, botak, sandaliak, zapatilak, tenis-oinetakoak, txinalak, zuekoak, jaka, berokia, tapauka, txabusina, txanoa, txanbergoa, eskularruak, eskuzorroak, txotoa, kapusaia, euritakoa, bisera, gorbata, gerrikoa, nikia, poloa, atorra, kapa, anoraka, txamarra, trajea, gabardina, txubaskeroa, bikini, albornoza, batina, txalekoa, artilezko xala.

Osagarriak: lepoa, mahukak, poltsikoak, botoiak, botoi-zuloak, hesgailuak, eskotea, eskumuturrak, kortxeteak, kremlera, begizta, belkroa, zolak, takoiak, lokarriak, korapiloa, begizta, belarria.

Ekintzak: botoiz lotzea, lotzea, askatzea, janzea, biluztea, oinetakoak jartzea, eskuilatzea, epeltzea, bustitzea, hoztea, estaltzea, blaitzea, lehortzea, askatzea, krokatea, askatzea, lotzea, gordetzea, zapatak kentzea, mozorrotzea.

Gaia: JANARIAK

Hiztegia: ogia, esnea, ogi-azala, mamia, ogi-xerra, kurruskua, muturra, opila, taloa, ogi-saskia; salda, entsalada, letxua, tomatea, olibak, zainzuria, kipula, berakatza, olioa, gatza, luzokerra, pepiniloa, arrosa, azafraia, limoia, porrua, piperra, zerbak, patatak, babak, ziakerbak, borrajak, kardua, orburuak, azalora, aza, ilarrak, babarrunak, lekak, dilistak, txitxirioak, sagarra, madaria, laranja, arbeletxekoa, banana, muxika, okarana, meloia, sandia, anana, mahatsa, mokatela, kiwia, txirimoia, aguakatea, kereixak, gingak, pomeloa, bikua, fruta, frutaria, frutadenda, yogurra, gazta, gurina, gatzatua, gaztanbera, flana, arrautza-esnea, tarta, bizkotxoa, pastela, budina, arrautzak, irina, azukrea, ezti, almendra, urra, pinaziak, intxaurrak, izozkia, okela, urdaiazpikoa, xerra, xafla, saltxitxioa, txorizoa, salamia, mortadela, urdaia, odolostea, oiloa, untxia, azpizuna, txuleta, harategia, harakina, baskula, arraina, arraindegia, arrain-saltzailea, lebatza, antxoa, sardinak, merlenka, makailua, bonitoa, atuna, txitxarroa, truita, txibiak, muskuiluak, ganbak, otarrainskak, muxilak, txokolata, gailetak, pastak, pipitak, makarroiak, espagetiak, txurroak, ogi xigortua, kanela, arrautza-suspiloa, hestebeteak, azkenburukoa.

Ekintzak: jatea, murtzikatzea, irenstea, miazkatzea, milikatzea, edatea, gantzutea, ebakitzea, sistatzea, zerbitzea, betetzea, maneatzea, hustea, egostea, irakitea, erretzea, helikatzea, haztea, gizontzea, gustatzea, nazkatzea, apailatzea, prestatzea, kraskatzea, zuritzea, ontzea, frogatzea, dastatzea, frijitzea, banatzea, gozotzea, hoztea, berotzea, nahastea, arrautzeztatzea, zikitzea, zipriztintzea, zatitzea, moztea, gonbidatzea, kortxoa kentzea.

Sukaldeko tresnak: kazola, eltzea, lalpikoa, burduntzalia, zartagina, paelontzia, sakotontzia, bitsadera, estalkia, iragazkia, zukugailua, azpila, entsaladontzia, platera, kikara, edalontzia, kopa, pizarra, botila, goilara, koilara, koilaratxoa, sardeska, labana, aihotza, taula, erretilua, katilua, ezpain-zapia, ezpain-zapitakoa, oliontzia, ozpin-ontzia, mahai-zapia, sukaldea, labea, azukre-ontzia, gatzontzia, plantxa, esne-egosgailua, moldea, hozkailua, izozkailua, biberioa, termoa,

Gaia: ANIMALIAK

Hiztegia: abereak, piztiak, txakurra, katua, ahatea, oiloa, txita, oilarra, zaldia, astoa, behorra, mandoa, untxia, ardia, ahuntza, moxala, behia, idia, txahala, zezena, sagua, indioilarra, usoa, hegaztiak, ordotsa, arkela, txerria, kumea, lehoia, tigrea, lehoinabarra, pantera, xirafa, zebra, itsas txakurra, hipopotamoa, elefantea, tximinoa, gorila, dortoka, sugea, gamelua, otsoa, hartza, azeria, arranoa, krokodiloa, marrazoa, balea, izurdea, txoriboboa, korta, saroea, oilategia, usotegia, kabia, haitzuloa, gordelekua, oihana, basoa, landa, inurria, labezomorroa, eulia, eulitxoa, armiarma, lumak, ezkatark, larrua, ilea, artilea, hegoa, hanka, mokoa, buztana, hegatsa, erpea, atzaparra, adarra, adarkada, ostikoa, hozkada, harramazkada, ziztada, atzaparkada, mokokada.

Ekintzak: zaunka egitea, marrakatzea, txio egitea, kakara egitea, irrintzi egitea, arrantza egitea, hegaz egitea, igeri egitea, jauzi egitea, herrestatzea, trostan ibiltzea, gora egitea, marru egitea, txorrotzio egitea, orro egitea, urrumatzea, karraka egitea, ehizatzea, haztea, hozka egitea.

Gaia: JOLASAK ETA JOSTAILUAK

Hiztegia: puzzlea, sokasalto, eraikuntzak, ontzitzoak, ziba, puxtariak, panpina, dominoa, kometa, zabua, baloia, futbola, txirrista, irristagailuak, monopatina, patinetea, trizikloa, txirringa, bilduma, partxisa, fitxa, dadoa, itzulipurdia, ezkutaketa, din-dana, harea, ibaia, labirintoa, itsumandoka, txingoka, txingoan, katea, buruhausgarria.

Ekintzak: jolastea, eraikitzea, eraistea, botatzea, ahokatzea, ataltzea, jauzi egitea, nahastea, itua jotzea, ematea, dantzatzea, irristatzea, elkartzea, banatzea, heltzea, askatzea, pilatzea, ikustea, izkutatzea, harrapatzea, hartzea, aurkitzea, labaintzea, dibertitzea, aspertzea, biltzea, jaurtitzea, berdintzea, irabaztea, galtzea, txutatzea, zabunkatzea, kulunkatzea, asmatzea.

Gaia: ETXEA

Hiztegia: etxea, etxebizitza, atea, txirrina, hormak, balkoia, leihoak, beirak, pertsianak, eskudela, jarlekua, behatokia, zabaltza, trastelekua, esekitokia, teilatua, kebidea, antena, erretena, fatxada, eskailera, mailak, jantokia, sukaldea, gela, logela, bainugela, sapaia, lurra, trenkadak, egongela, altzariak, mahaia, aulkiak, argia, tapiza, gortinak, koadroa, lorontzia, besaulkiak, kuxinak, erlojua, irratia, telebista, ohea, koltxoia, izarak, burusia, burukoa, ohazala, armairua, mahitxoia, bainontzia, dutxa, konketa, txorrota, ispilua, belakia, xaboia, xaboi-ontzia, taburetea, uharka, komuna, katea, axuleiua, zerria, sukaldea, sua, bonbona, harrikoa, erratza, pala, pertza, zarama, baieta, zapiak, ikuzkailua, etengailua, errota, irabiagailu, igogailua.

Ekintzak: erratzatzea, garbitzea, harrikoa egitea, piztea, itzaltzea, izoztea, poteratzea, harilkatzea, biltzea, zabaltzea.

7.2.- Esaldien bidez, behar, nahi, agindu eta ideiak adierazteko gaitasuna garatu

7.2.1.- Haurrak, behar pertsonal baten aurrean, hitz edo hots bat sortuko du.

Tresnak: benetazko gauzak (ogia, ura, esnea, irudiak)

Iharduerak:

- Haurraren keinu eta hitzen aurrean adi egotea, zerbait eskatzeko edozein ahalegin erreforzatu ahal izateko.
- Haurrak keinuen bidez bakarrik adierazten badu galdetu zer nahi duen.
- Keinurik ere ez badago, baina zerbait nahi duela somatzen bada, galdetu: “nahi al duzu ogi, ura, esnerik,..?” seinalatzen zaion bitartean.
- Haurrak seinalatzen duena izendatzen da berriro... eta galdetzen zaio: Zer da hau?
- Umearen aurrean jarri: janaria, jostailuak, edaria.. eta esan, hori nahi badu bere izena esan behar duela.
- Gauzak eskatzeko keinuak baztertu.
Oharra: Hasieran keinuak onartu baldin eta hotsez lagundurik badaude.

7.2.2.- Haurrak premi pertsonal bat izatean, bi hitz lotuko ditu: Ama ura, aita txiza,...

Tresnak: jantziak, janaria, jostailuak, ..

Iharduerak:

- Adi egon edozein lotura mota (ama ogia,...) erreforatzeko.
- Gauzak jarri: jantziak, janaria, jostailuak,...; eta esan haurrari zerbait nahi badu, irakaslearen izena esan beharko duela eta gero hartu.

7.2.3.- Haurrak zerbair eskatzeko “Emaidazu (gauza)” esango du.

Tresnak: janaria, gelako gauzak, jantziak,...

Iharduerak:

- Gauza-trukaketa egiteko jolasa burutu. Borobilean hurrek hiruna gauza edukiko dituzte... irakaslea hau esaten hasiko da: “Emaidazu...”. Haurrak animatzen ditu gauza bera egitera.
- Supermerkatu bat antolatu eta dendariarena egiten duenarengana zuzendu esaten: “Emaidazu pilota bat”
- Ez eman ezer era zuzenean eskatzen ez badu: “Emaidazu (gauza)”. Familia ere animatu gauza bera egin dezan.

7.2.4.- Haurrak, irakasleak “Zer egin nahi duzu?” galdetzean, “nahi izan + ekintza” erabiliko du.

Tresnak: ekintza ezberdinak irudietan

Iharduerak:

- Haurrei eguneko ekintzak azaldu: margotzea, paseiatzea, musika entzutea,..; galdetu: “Gaur, zer egin nahi duzu?”. Haurrak “.... nahi dut” erantzun behar du. Hasi gure ustez erantzun zuzena emango duen haurrarekin.
- Ekintza ezberdinen irudiak aurkeztu.
- Txango bat antolatzekeo ideia azaldu: mendira, azokara, geltokira,.... Galdetu: “Nora joan nahi duzu?.....ra joan nahi dut”

7.2.5.- Haurrak gauza bat edo batzuk eskatzeko “Emaidazu/emaizkidazu + gauza bat/batzuk” esango du.

Tresnak: gozokiak, fruitu lehorrak, kromoak, puxtarriak,...

Iharduerak.

- Denda edo gozoki-postu bat antolatu.
- Haurrak behin singularrean eta hurrengoan pluralean eska dezan; araua betetzen ez badu ez zaio gozokirik emango. “Emaidazu gozoki bat, emaizkidazu gozoki batzuk”
- Jolasa uler dezaten, aurretik saio bat egin.
- Gelaren premien arabera zabaldu.
- Ez da beharrezkoa artikulua jartzea, baina jartzen badute erreforzatu.

7.2.6.- Haurrak edutezko izenordainak (nirea, nire...) zerbaiten jabetza adierazteko erabiliko ditu

Tresnak: jostailuak, jantziak, umeen gauza pertsonalak,...

Iharduerak:

- Haurrari etxetik bere gauzaren bat ekartzeko eskatu. Irakasleak “Norena da hau?” galdetuko du. Haurrak “Nirea da” erantzun behar du.
- Ondoren irakasleak gauzak horretaz esan duena errepikatzerara animatuko du. Irakasleak bere gauza atera eta esaten du: “nire liburua”, eta haurrak gauza bera egitera gonbidatzen ditu.

7.2.7.- Umeak zerbait eskatzeko “izena+adjetiboa” erabiliko du.

Tresnak: gelako gauzak, jantziak,...

Iharduerak:

- Gauzak, koloretakoak, handiak, txikiak, borobilak,.. izan daitezke.
- Umeari bere gauza eskatzean kalitateak (adjetiboa) gehitzeko esaten zaio: Emaidazu pilota gorria,...
- Komenigarria da aldeztu aurretik irakasleak gauzen kalitateak komentatzea: pilota hau gorria da,...

7.2.8.- Haurrak irakasleak “Zein gauza eduki nahi zenituzke?” galdetzean, pluraltzailak (batzuk, -ak) erabiliko ditu.

Tresnak: jostailuak

Iharduerak:

- Haurrari gauza batzuk aurkeztu eta galdetu: “Zeintzuk eduki nahi zenituzke?”. Erantzuna: panpina, kotxeak,...

7.2.9.- Haurrak nahi duena adierazteko izenordainak erabiliko ditu.

Tresnak: zorroak, txabusinak, tapaukak,.... haurraren gauzak.

Iharduerak.

- Irakasleak izenordainak (pertsonek, edutezkoak, erakusleak) erabiltzeko egoerak planteiatuko ditu.
- Haurrak heldzerakoan beren gauzak hartu eta galdetzen du: norena da beroki hau?. Erantzuna “nirea” izango da.

- Ondoren, arkatz potea atera eta galdetzen du: Nork nahi du arkatz hau?. Erantzuna “nik” izango da.
- Azkenean, bi argazki hartzen ditu: bat mahai gainean uzten du eta bestea haurraren mahaian; galdetzen du: zein argazki nahi duzu: hau ala hura?. Erantzuna “hau” ala “hura” izan ahal izango da.

7.2.10.- Haurrak nahi duena adierazteko, espazio eta denbora partikulak erabiliko ditu.

Tresnak: pilota, gelako gauzak,...

Iharduerak:

- Irakasleak pilota bat hartu eta haurrari esaten dio: “Jarrihan, non esan dizut jartzeko?... han.”
- ” Hartu “orain” arkatzak marrazki bat egiteko. Marrazki bat orain egingo dugu. Noiz egingo dugu marrazki bat, orain ala beranduago?”. Haurrak “orain” erantzun behar du.
- Honelako beste egoerak sortu denbora eta espazio partikula horiek erabiltzeko.

7.2.11.- Haurrak aditzak erabiliz hitz batez, bere lagunei aginduak emango dizkie.

Tresnak: Gela eta bertako gauzak (atea,..) erabili

Iharduerak:

- Irakasleak aginteak erabiltzeko egoerak sortzen ditu:
 - * Haurrak gelako alde batean horma ondoan jarrita, ume batek besteei banan banan “korri” agindua ematen die.
 - * Antzeko egoerak erabiliko dira ondorengo aginduak erabilarazten: jauzi, etorri, irten, jan, isildu, margotu,...

7.2.12.- Haurrak, irakasleak lagundurik, agintera eta osagarri bat duten aginduak emango ditu.

Tresnak: gelako gauzak

Iharduerak.

- Irakasleak haurra ihardueren koordinatzaile izateko eta ekintzak agintzeko egoerak sortuko ditu:
 - * Josu, jantzi txabusina
 - * Ainhoa, hartu aulkia
 - * Alberto, etorri hona
 - * Eneko, marraztu arbelean

7.2.13.- Haurrak agindu bat ematerakoan “mesedez” hitza erabiliko du.

Tresnak: gelako gauzak

Iharduerak.

- Irakasleak, haurrak “mesedez” hitza eta agindu bat erabiltzeko egoera sortuko ditu:
 - * Dendetan jolastu. Ume batek aitaren papera egiten du eta dendariari esaten dio: mesedez, emango didazu..
 - * Irakasletan jolastu. Haur batek maisuarena egin eta esaten du: jesarri mesedez, etorri hona mesedez,...

7.2.14.- Haurrak lokailu edo “izan” aditza duten esaldi errazak erabiliko ditu.

Tresnak: gelako gauzak

Iharduerak:

- Irakasleak haurrari jostailu batzuk aurkeztu eta bi “ nik.. -a eta-a nahi ditut” esaldia esanez aukera dezakeela esaten dio
- Jostailu batzuk aurkeztu eta beren ezaugarriak honela adierazteko eskatzen die: “...-a ...(gorria, handia, polita,..) da”.
- Iharduera batzuk aurkeztu eta “nik.... eta.... nahi dut” esaldiaz bi aukeratzeko eskatzen zaio.

7.2.15.- Haurrak irakasleak hasitako esaldi errezak osatuko ditu.

Tresnak: irakaslearen ahotsa

Iharduerak:

- Irakasleak bukaera asmagarriak dituzten esaldiak hasiko ditu:
 - * Hotz naizenean.... janzten du
 - * Sua pizteko..... behar dut
 - * Bidaiatzeko.... hartzen dut
 - * Euria egiten duenean.... hartzen dut.
- Oharra: ariketa honetan hasieran lagundu ahal zaie aldeztatik arbelean esaldiak osatzeko beharrezkoak diren gauzak marraztuz.

7.2.16.- Haurrak esaldi errazak, dagokien adjetibo edo izenordaina gehituz, osatuko ditu.

Iharduerak.

- Hitz bat (kualitatea ala kokapena) ezinbestekoa den ikas-egoerak sortu.
- Ikusi-makusi jolasa erabilgarria izan daiteke. Haurrak “Ikusi-makusi, koloreko pilota bat”, “Ikusi-makusi, zuhaitz (handi ala txiki) bat”,...
- Bestelako esaldi logikoak:
 - * Azukrea (gozoa) da
 - * Salda (bero ala hotz) hartu dut.
 - * Zorro hau (nirea) da
 - * Ainhua nire (ondoan) dago
 - * Pilota mahai (gainean) dago
 - * Nire txabusina hemen dago, (hau) da
 - * Albertoren jaka han dago, (hura) da
 - * Kartel hau guk egin dugu, (gurea) da
- Gela bi zatitan eta zati bakoitza talde bati egokitzeko egoera sortu. “Gure” eta “zuen” hitzak azpimarratu espazioan. Adibidez: irakalea talde batekin alde batean kokatzen da eta esaten du: “hau gure tokia da, gurea da”...”hori zuen tokia da, zuena da”. Hau eta honelako egoerak zenbait aldiz errepikatu ondoren, ondorengo esaldien modukoak osatzeko eskatuko zaie:
 - * Hau gure lekua da, (gurea) da
 - * Hori zuen lekua da, (zuena) da
 - * Hori beren lekua da, (beraiena) da
- * Zuek hor zaudete, (zuen) lekua da

7.2.17.- Haurrak, irakasleak hasitako pluralez eta singularrez osaturiko esaldiak bukatuko ditu amaiera asmatuz.

Iharduerak:

- Ikas-egoerak sortu interes guneko hiztegia aprobetxatuz.

- * Ni txoria banintz (hegoak, mokoa, hankak) edukiko nituzke/nuke
- * Ni zuhaitza banintz (makal,,,) bat izatea gustatuko litzaidake
- * Zuk jostailu bat uzten badidazu nik (besarkada,...) bat emango dizut.
- * Dirurik baneuka..(gozoki batzuk, baloi bat,..) erosiko nituzke/nuke
- * Airean txoriak daude, itsasoan..... daude.
- * Ibiltzeko zangoak erabiltzen ditugu, besarkatzeko..... erabiltzen ditugu
- * Jateko ahoa erabiltzen dugu, arnasa hartzeko...

7.2.18.- Haurrak, irakasleak hasitako antonimoz osaturiko esaldiak bukatuko ditu.

Iharduerak.

- Aldez aurretik antonimoak gauza konkretuekin landuak izango dituzte: handi-txiki, hotz-bero, altu-baxu, lodi-argal, gozo-gazi, zuri-beltz, ilehori-beltzaran,...
- Irakasleak esaldi bat proposatu eta osatu egiten du eredu lez. Esaten du:
 - * Elurra zuria da eta ikatza... da
 - * Sua beroa da eta izotza...(hotza) da
 - * Antonio mutiko bat da eta Juana (neskatua) da
 - * Limoia garratza da eta laranja... da
 - * Itsasoa zabala da eta lakua... da
 - * Juan altua da eta Antonia... da.

7.2.19.- Haurrak irakasleari erantzuteko, aditza orainaldian “orain” adberbioarekin erabiliko du.

Iharduerak.

- Irakasleak lanean ari den haur bakoitzari begiratu eta galdetzen dio: “zer egiten ari zara orain? Orain idazten ari naiz, orain jaten ari naiz,..”
- Irudimena bultzatu ahal da: haurrak egiten ari dena asmatu eta keinuen bidez irudikatu: “ orain igeri egiten ari naiz eta besoak mugitzen ari naiz,..”
- Ekintzen irudiez, umeak bertan egiten ari dena esan dezake.

7.2.20.- Haurrak aditza iraganean “atzo, lehen” adberbioekin erabiliko du.

Iharduerak:

- Astelehenean, haurra ikastetxera heltzean asteburuan egin zuenaz galdetzen zaio: Atzo, zer egin zenuen?
 - * Atzo...
- Bigarren iharduera ematerakoan galdetzen zaio: Zer egin duzu lehen? Lehen,...

7.2.21.- Haurrak aditza geroaldian adberbio edo adierazpen adberbialekin (bihar, gero,... arratsaldean, gauean,...)erabiliko du.

Iharduerak:

- Jai-bezperak, arratsaldeko lanak,... erabil daitezke galdetzeko: Bihar, zer egingo duzu? Bihar..
- Gauean zer egingo duzu? Zer egingo duzu margotu ondoren?

7.2.22.- Haurrak hitz bat (izena) abiapuntutzat harturik, esaldi erraza eratuko du.

Iharduerak.

- Hitz hau irudi batetik, benetazko zerbaitetik edo aditz-adierazpenetik atera daiteke. Adibidez:
 - * Gozoki bat erakusten zaio: “Gozokia gustatzen zait”.
 - * Zuhaitz baten irudia erakutsi: “Zuhaitza zelaian dago”

- Irakasleak edo haurrak hitz bat “oinetakoa” esaten du: “Oinetakoa oinetan ipintzeko ...handia... zuria... da”

7.2.23.- Haurrak aditza abiapuntutzat harturik, esaldi erraza eratuko du:

Iharduerak:

- Aditz infinitiboa esan, eta honetatik esaldi bat eratu behar da: “margotu”. “Nik arbelean margotzen dut”
- Haurrak eskuak igeriketan balego bezala mugitzen ditu... “Antonio igeri egiten ari da”.

7.2.24.- Umeak zerbaiten kualitatea adierazten duen hitz batetik (adjetiboa) abiatuz, esaldi erraza osatuko du.

Iharduerak.

- Irakasleak zenbait adjetibo esaten ditu: gorria, handia, karratua, borobila, ederra, mehea,.. eta eredia ematen die: Borobila “ Inñigoren burua borobila da”.
- Haurrak beste adjetiboekin gauza bera egin behar du.
- Haurrak adjetiboak eta inguruko gauzak erabiliz esaldiak osatzera animatu.

7.2.25.- Haurrak leku edo kantitate adberbio batetik abiatuz esaldi bat osatuko du.

Iharduerak:

- Irakasleak adberbio batzuk esaten ditu:
 - * Kantitatea: Askok “Nik asko lortu dut”
 - * Lekua: aurrean “Ni ate aurrean nago”
- Aurrekoa beste adberbioekin orokortu.

7.2.26.- Haurrak galdetzaile bat (nor, zein, non, nora, norantz, zertarako, nola...?) hartuz galdera bat osatuko du.

Iharduerak:

- Irakasleak partikulak aipatzen ditu eta bat erabiliz eredia ematen die
- Ondoren haurrak gauza bera egitera animatzen ditu:
 - * Non: non dago mahaia
 - * Nor: nor etorri da?
 - * Zertarako: zertarako hartu duzu hori?

7.3.- Galderak erantzuteko gaitasuna garatu

7.3.1.- Haurrak bere burua identifikatzeko galdera erraz batzuk erantzungo ditu.

Iharduerak:

- Irakasleak haurrari bere datu pertsonalez galdetuko dio:
 - * Nola deitzen zara?
 - * Zenbat urte dituzu?
 - * Nola deitzen da zure ama?
 - * Nola deitzen da zure aita?

7.3.2.- Haurrak, okertu gabe bost aldiz gutxienez Bai-Ez erantzungo du galdera batzuk egitean.

Iharduerak.

- Galderak haurraren esperientziez eta hiztegi ezagunekoak izango dira.
 - * Gose al zara?
 - * Nekatuta zaude?
- Jolastu, jateko gauzetaz ere galdetu:
 - * Nahi al duzu pilota hau?
 - * Nahi al duzu gozoki hau?
 - * Nirekin etorri nahi al duzu?
- Azkenean, gauzak erakutsi eta galdetu:
 - * Hau kikara al da? Hau pilota al da?.. Zenbaitetan gauza hori pilota izango da eta besteetan ez, erantzun ezberdinak ematen dituela ziurtatzeko.

7.3.3.- Haurrak iharduera batean “zer egiten ari zara?” eta irudi baten aurrean “zer egiten ari da?” galderak erantzungo ditu.

Iharduerak:

- Gelan gertatzen diren ihardueraz edo bertan burutzen dituztenez “Zer egiten ari zara?” galdetuko die irakasleak.
- Iharduera batzuk: jatea, janaria prestatzea, margotzea, ziztatzea, moztea, erratzatzea, bere burua orraztea,...
- Iharduerei buruzko irudiak erakutsi eta galdetu: “Zer egiten ari da pertsonaia?”

7.3.4.- Haurrak, irakasleak edo beste umeren batek “non, nor” galdetzean, erantzungo du.

Iharduerak:

- Irakasleak haurrari bere familiaz, jostailuez, jantziez, ihardueraz,.. galdetzen dio: Nork lagundu zaitu autobusera? Nolakoa da autobusa? Non daukazu zorroa?..
- Irudien aurrean, irakasleak galdetuko dio:
 - * Nor ari da jolasten?...

7.3.5.- Haurrak “Ez” hitza erabiliz (gabezia adierazteko, ez debekua), erantzungo du.

Iharduerak.

- Irakasleak gelan ez dauden pertsonaz galdetzen du: Non dago Luis? Luis ez dago.
- Irakasleak bere belarria ikutuz, galdetu: Hemen al dago sudurra?

7.3.6.- Haurrak “norekin, norena, norentzat” galderak zuzen erantzungo ditu.

Iharduerak:

- Norekin etorri zara ikastetxera?
- Norentzat da gozoki hau?
- Ariketa bera irudiak erabiliz.

7.3.7.- Haurrak galdera zentzugabeak era egokian erantzungo ditu.

Iharduerak.

- Hurrei erne egoteko esan, zuzenduko zaizkion galderak gaizki daude eta. Azaldu behar dute zergatik dauden gaizki.
- Zuk oinez jaten duzu?
- Antonio zuhaitz bat al da?
- Zuk atzamarrez begiratzen al diozu?
- Pilota hau karratua al da?
- Ekintza irudiak, benetazko egoerak erabil ditzakegu: Haur bat eskaileretatik igotzen ari da eta jaten ari dela esaten diogu.

7.3.8.- Haurrak “zergatik” galdera zuzen erantzungo du; nahiko da zentzuzko erantzun bat ematea. Honelako galderekin haurra ekintzen arrazoietaz ohartzea nahi dugu.

Iharduerak.

- Istorio bat kontatu eta galdetu:
 - * Zergatik abesten zuten?
 - * Zergatik zabaltzen zuten euritakoa?
 - * Zergatik zeuden triste?
- Gogo-egoerak eta premiak:
 - * Zergatik erabiltzen dugu bainu-jantzia?
 - * Zergatik janzen dugu berokia?
 - * Zergatik jaten dugu?
 - * Zergatik erabiltzen dugu kotxea?

7.3.9.- Haurrak “non” partikulatik eratorritako galderak (norantz, nora) erantzungo ditu.

Iharduerak.

- Txango bat antolatzekeo ideia aprobetxa daiteke: Nora joan nahi duzu?
- Haurrak ezagutzen dituen ibilbide laburrak erabil daitezke: ikastetxe barruan, bere etxera joateko,...

7.3.10.- Haurrek irakasleak “zenbat” partikulaz egindako kantitate-galderak erantzungo dituzte.

Iharduerak.

- Interesgune ezberdinak oinarritzat har daitezke: janari bat, denda bat, bidaiaria bat,...
- Haurrek erosle edo dendarien papera egin dezakete. Galdetuko dute: Zenbatetan daude laranja? Zenbat ogi nahi duzu?

7.3.11.- Haurrak “noiz” galdetzaileaz hasitako galdera erantzungo du.

Iharduerak.

- Haurrari iragan, orain eta geroko egoeretaz galdetu.
 - * Noiz joango gara etxera?
 - * Noiz jango dugu?
 - * Noiz izango ditugu oporrak?
 - * Noiz egiten duzu lo? Noiz gosaltzen duzu? Noiz bazkaltzen duzu?
Noiz askaltzen duzu? Noiz afaltzen duzu? Noiz oheratzen zara? Zabaldu haurrarentzat ohikoak diren denbora-egoerekin.

7.3.12.- Haurrak bere burua identifikatzeko galdera konplexuak zuzen erantzungo ditu.

Iharduerak.

- Nola deitzen zara? (Izena eta bi abizen)
- Nola deitzen dira zure gurasoak ?
- Non bizi zara? (herria)
- Helbidea: kalea, zenbakia eta herrialdea.
- Telefono-zenbakia.

7.3.13.- Haurrak “zergatik “ galdetzaileaz hasitako ekintza, gauzen kalitate, gogo-egoerei buruzko galderak era egokian erantzungo ditu. Galderek gauza edo ekintzez iritzia, deskribapena edo kalitateei buruzko erantzunak suposatuko dituzte.

Iharduerak:

- Nola zegoen janaria?
- Zergatik zaude triste? Zergatik zaude pozik?
- Zergatik bainatzen zara?
- Zein txango gustatu zitzaizun gehien?
- Zertan gustatzen zaizu jolastea? Zergatik?
- Ikastetxea gustatzen zaizu? Zergatik?

7.3.14.- Haurrak galdera zentzugabea erantzungo du galdera horrek zergatik ez duen zentzurik azalduz.

Iharduerak:

- Zergatik zabilta belarriz?
- Zuk, harriak jaten al dituzu?
- Asto bat hegan ikusi al duzu?
- Oinetakoaz orrazten al zara?
- Gurpil karratutako kotxerik al duzu?
- Guraizez idazten al duzu?
- Margoaz mozten al duzu?
- Sudurraz marrazten al duzu?

7.4.- Galderak egiteko gaitasuna garatu

7.4.1.- Haurrak irakasle edo kideei identifikazio pertsonalari buruzko galdera errazak egingo dizkie.

Iharduerak:

- Bisitetan jolastu, beste hurrei beren datu pertsonalez galdetuz:
- Nola deitzen zara?
- Nongoa zara?
- Non bizi zara?
- Nola deitzen da zure ama?
- Nola deitzen da zure aita?
- Zenbat urte dituzu?

7.4.2.- Haurrak gauzen jabetzaz, besteen gogoetaz, gogo-egoerez, jolastera gonbidatzeaz, iharduereaz,... bai-etzko galderak egingo ditu.

Iharduerak.

- Bizi-egoerak bilatu galderek zentzua izan dezaten.
- Gose al zara? Egarrri al zara?
- Lan baten ostean: nekatuta al zaude? egin duzuna gustatu al zaizu?
- Patiora irten aurretik: Pilota nahi duzu? lagunduko nauzu? Etorriko zara nirekin? Zurea al da zorro hau?

7.4.3.- Haurrak “zer” partikula erabiliz, bere lagunei egiten ari direnetaz galdetuko die.

Iharduerak:

- Oinarritzat ekintza-materialak harturik, haurrak “zer egiten du?” galdetuko du.
- Gelako hurrei galde diezaiei “Zer egiten du?”

7.4.4.- Haurrak “zer” partikula erabiliz, benetazko gauza zein irudien identifikazioaz galdetuko du.

Iharduerak.

- Haurrari bere hiztegia aberasteko asmoz, baliabide batzuk eskaini nahi zaizkio.
- Haurrari benetazko gauzak zein irudiak aurkeztu eta gauza bakoitza zer den galdetzen zaio.
- Irakaslearena egiten, haurrak “Zer da hau?” galde dezan.

7.4.5.- Haurrak “nor/nork” partikulak erabiliz, gelan ezezaguna den pertsona (haurra zein heldua), lan edo ekintza baten egilea identifikatzeko galderak egingo ditu.

Iharduerak.

- Komenigarria da galderak benetazko egoeretan egitea: Ume berria etorri da, nor da?
- Burututako lanaz: Nork egin du lan hau? Nor dago komunean?
- Gertaera batez: zarata, kolpea,.. Nor izan da?
- Pertsona ezberdinen ahotsak entzutean, haurak galdetuko du: Nork hitz egin du?

7.4.6.- Haurrak “non” partikulaz, espazio-orientazioaz galdetuko du.

Iharduerak.

- Gauzak ordenatu edo jartzeko egoerak sortu.
- Galdera irakasle eta ikaslearen artean txandakatu: Non jarriko dugu kotxea?...

- Galdutako zerbait edo kanpoan zegoen haur bat aurkitzean: Non zegoen zorroa?...

7.4.7.- Haurrak “zergatik” partikulaz, ekintza, gogo-egoera, zerbaiten kalitatearen arrazioaz galdetuko du.

Iharduerak.

- Jarrera ezberdinen aurrean galdetu: Zergatik egiten duzu barre? Zergatik abesten duzu? Zergatik jaten duzu? Zergatik joaten zara?
- Gauza eta lekuen ezaugarriez: Zergatik egiten dute hegan txoriek? Zergatik dago ilun?

7.4.8.- Haurrak “nola-nolakoa/ bezala-bezalakoa” partikulez, osasun-egoera, lan bat egiteko modua, konparaketaz galdetuko du

Iharduerak.

- Zuk, nola egingo zenuke etxe bat?'
- Nola igotzen zara zure etxera?
- Zure amak nola prestatzen du tortila?
- Gauza berdin eta ezberdinen artean, konparaketak egin: Zuhaitz hau beste hau bezalakoa da.

7.4.9.- Haurrak jabetza eta ekintzaz galdetuko du.

Iharduerak:

- Zerbait ikustean: Norena da hau?
- Burututako lana: Nork egin du hau?
- Oparia: Norentzat da hau?

7.4.10.- Haurrak gertaera baten kopuruaz, balioaz, hurbiltasunaz,... galdetuko du

Iharduerak.

- Dendatan jolastu (erosi-saldu): Zenbatetan daude margoak? Zenbat kotxe daude?
- Jai baten aurrean: Zenbat egun falta dira?
- Dirua, balioa: Zenbat balio du hogereko batek?

7.4.11.- Haurrak “nora, nondik, norantz” partikulez, espazio-orientazioaz galdetuko du.

Iharduerak.

- Txango bat prestatzean: Nora joango gara?
- Lekua aukeratuz gero: Nondik joango gara?
- Haurrak zerbait hartzean: Nondik hartu duzu?
- Kotxea, hegazkina, umea... mugitzen ikustean: Norantz zihoan?
- Zerbaiten jatorriaz ere galdetu ahal dugu: Nondik lortzen dugu esnea?

7.4.12.- Haurrak “norekin” galdetzaileaz laguntza, lankidetzaz, konplizitatea adierazten duten galderak egingo ditu.

Iharduerak.

- Lan baten aurrean: Norekin egon, joan,... nahi duzu?
- Buruturiko zerbait: Norekin egin duzu? Norekin zindoazen?

7.4.13.- Haurrak “ zerez, zertarako” galdetzailez ohiko tresnez galdetuko du.

Iharduerak.

- Iharduera baten aurrean: Zertarako egiten ari zara hau? Zertarako balio du mailuak?
Zerez egin diozu?

7.4.14.- Haurrak ezezko galdera errazak egingo ditu.

Iharduerak.

- Haurrari eredu bat aurkeztu: Ez al duzu jan? Ez al dago Ander hemen?

7.4.15.- Haurrak “noiz, zergatik, zerez, zertarako, nola, zenbat, nor, norekin, norentzat, nora, norantz, nondik,..” partikulez galderak egingo ditu.

Iharduerak.

- Istorio bat kontatu eta horretaz galderak egin.

7.4.16.- Haurrak, ezagutzen dituen galdetzaileez, ezezko galderak egingo ditu.

Iharduerak:

- Istorio bat kontatu eta ezezko galderak egin: Zergatik ez zen etorri Ander ?
Norentzat ez duzu lanik egin nahi?

7.5.- Gauza, ekintza eta irudiak deskribatzeko gaitasuna garatu

7.5.1.- Haurrak, zergatik elkartzen dituen irakasleak aurkeztutako gauza batzuk eta ez besteak, azalduko du.

Iharduerak:

- Irakasleak haurrari benetazko gauza eta irudi batzuk aurkezten dizkio eta kategoria berekoak direnak elkartzeko eskatzen dio; zergatik jarri dituen elkarrekin, besteetatik bananduz, galdetuko dio.

7.5.2.- Haurrak irakasleak aurkezturiko gauzak ahalik eta multzo gehienetan sailkatuko ditu, talde horien arrazoiak azalduz

7.5.3.- Haurrak bere inguruko bost gauza gutxienez izendatuko ditu, bakoitzaz kalitate bat esanez.

7.5.4.- Haurrak benetazko edo irudi bateko iharduera deskribatuko du, gutxienez bi kalitate edo datu emanez horretaz

Iharduerak.

- Haurrei egin nahi dutena esateko eskatzen zaie: batek margotu nahi du, beste batek paseatu, beste batek erratzatu,... Ondoren, irakasleak ume baten iharduera deskribatzen du. Beste bati deitu eta lagunaren ihardueraz gutxienez bi datu emateko eskatzen zaio.

7.5.5.- Haurrak irakasleak proposaturiko sail bakoitzeko bost gauza gutxienez aipatuko ditu, bakoitzaren kalitate bat deskribatuz.

Iharduerak.

- Irakasleak haurrari animaliak esan eta gutxienez kalitate batez deskribatzeko eskatzen dio.
- Beste kategoriekin jarraitu: janariak, jantziak,...

7.5.6.- Haurrak alde zurretik toki edo kokapen zehatz batetik hartu duen zerbaiten kokapen deskribatuko du.

Iharduerak.

- Haurrei gelako gauza bana hartu eta mahaian uzteko eskatzen zaie. Ondoren galdetzen zaie: Non zegoen? Nondik hartu duzu?

7.5.7.- Haurrak zerbait zergatik ez dagozkion kategoria bati arrazoituko du.

Iharduerak.

- Kategoria bati dagozkion lau gauza eta beste kategoria bateko zerbait aurkeztu. Irakasleak kategoria ezberdinekoa seinatu eta horren zergatia azalduko du.

7.5.8.- Haurrak amankomunean zerbait duten bi gauzen arteko ezberdintasun bat gutxienez aipatuko du.

Iharduerak:

- Irakasleak ezaugarri amankomun eta ezberdinak dituzten gauzak binaka aurkeztuko ditu: borragoma eta zorrozgailua, txiskeroa eta paketea; behia eta katua; alkandora eta prakak;...
- Galdera ondorengoa da: Zertan dira ezberdinak?. Haurrak ezberdintasun bat gutxienez aipatu behar du, bi edo gehiago izatea posible izanik.
- Irudiak erabil daitezke eta galdera bera egin.

7.5.9.- Haurrak kategoría berekoak diren gauza edo animaliak taldekatuko ditu.

Iharduerak.

- Irakasleak ozenki edo kategoría berekoak diren irudiak aurkeztuz, galdetzen du: Zein taldetakoa da? Adibidez: galtzerdi bat, praka batzuk, adur-zapia,...

7.5.10.- Haurrak irakasleak egindako deskribapenaz gauza bat asmatuko du. Gauzak agerian izango dira, baten deskribapena egin eta galdetu: Zer da?

Tresnak: benetazko gauzak, eta gero irudiak

Iharduerak:

- Irakasleak haurrari bost gauza edo irudi aurkeztuko dizkio; banan banan deskribatuko ditu eta ondoren, zer den galdetuko du. Adibidez: arkatx bat, pilota bat, beroki bat eta sagar bat aurkezten ditu. Deskribapena: borobila da eta jan daiteke: Zer da? Sagar bat da. Gauza guztiekin egin.

7.5.11.- Haurrak, irakasleak aurkezturiko antzekoak diren bi gauzaren bi ezaugarri amankomun aipatuko ditu “zertan dira berdinak?” galderari erantzunez.

Tresnak. benetazko gauzak eta irudiak

Iharduerak:

- Haurrari antzekoak baina ezberdinak diren bikoteak aurkeztu. Galdetu: Zertan dira berdinak? Aipatu bi berdintasun. Adibidez: praka batzuk eta alkondara bat; mahai bat eta aulki bat;...

7.5.12.- Haurrak gauza batzuk zein kategoriatakoak diren esango du eta beste batzuren sekuentziaketa osatuko du. Aldez aurretik “Zein taldetakoak dira?” galderari erantzunez irakasleak burututako kategoría bateko hiru elementu aurkeztuko du eta talde horretako gauza gehiago aipatzen jarraituko du.

Tresnak: benetazko edo asmatutako gauzak

Iharduerak.

- Irakasleak ahoz kategoría bereko hiru gauzaren izenak edo irudiak aurkezten ditu galdetuz: Zein taldetakoak dira? Jarraitu zuk gauza gehiago esaten. Adibidez: sagar bat, madari bat, muxika bat,...

7.5.13.- Haur bakoitzak zerbait deskribatuko du bere lagunek ezagutu eta izenda dezaten.

Tresnak: gauza ezberdinak

Iharduerak:

- Ikusi-makusi

- Gorria, borobila eta jolasteko balio duen zerbait ikusten dut, zer da?

7.6.- Istoriotxo grafiko zein bere esperientzien aurkezpenaren sekuentziaketarako gaitasuna garatu.

7.6.1.- Haurra, irakasleak aurretik aurkeztu eta komentatu dituen bi binetaz osaturiko istorioa ordenatuko du.

Tresnak: binetak

Iharduerak:

- Irakasleak istorio bat kontatzen du bi binetez osatzen duen bitartean.
- Ondoren haurrari materiala eman eta istoriotxoa ordenatzeko eskatu.

7.6.2.- Haurrak bizpahiru esaldi erabiliz berak igarotako gertaera hurbil bat sekuentziaturik kontatuko du.

Iharduerak:

- Irakasleak haurraren esperientziak ondo ezagutu eta bere ihardueren berri izango du.
- Iharduera bat burutu ondoren, irakasleak galdetuko dio: Zer egin duzu?
- Bazkaldu ondoren, arratsaldean: Zer bazkaldu duzu?
- Goizean ikastetxera heltzean: Zer egin duzu gaur goizean? Kontaidazu nola etorri zaren,...

7.6.3.- Haurrak bere eguneroko bizitzari buruzko bineta batzuk ordenatu eta azalduko ditu.

Tresnak: binetak

Iharduerak.

- Irakasleak haurrekin eguneroko bizitzan ematen diren egoerak komentatzen ditu.
 - Haurra ohetik altxatzen da.
 - Haurrak bere burua garbitzen du.
 - Haurrak gosaltzen du.
 - Kausa-ondorio sekuentziaketa honetaz bineta bat egin, haurrak ordenatu eta konta dezan
- Beste adibideak:
- Haura izozkidendara korrika doa. Izozki-saltzaileari izozkia eskatzen dio. Izozkia jaten alde egiten du.
 - Galdetu: Nola ordenatzen da? Kontatuko duzu?

7.6.4.- Haurrak sekuentziaturik eta hiru esaldi gutxienez erabiliz, berak igarotako gertaera garrantzitsu bat (jaia, txangoa, azokarako bisita,...) kontatuko du.

Iharduerak.

- Irakasleak haurrak duela gutxi bizitutako gertaera bat (jaia, txangoa,..) aprobeztatzen du hasieratik bukaerara arte ordenaturik konta diezaien eskatzeko. (Oso zehatza bada) hiru esalditara hel dadin.

7.6.5.- Haurrak, gutxienez hiru esaldi erabiliz, bizitzaren edo gertaera natural baten prozesua era sekuentziatuan kontatuko du.

Iharduerak.

- Irakasleak haurrekin bizitzaren edo gertaera natural batzuk komentatzen ditu: ogia egiteko prozesua, txori baten jaiotza,...
- Haurrari gutxienez hiru esaldi erabiliz deskriba dezan eskatu.

7.6.6.- Haurrak berak sekuentzialki ordenaturiko lau binetako gertaera baten prozesua kontatuko du.

Iharduerak:

- Irakasleak bizitzaren edo gertaera natural baten prozesua kontatzen du: istripua, gaztaren prestaketa, postaz bidalitako gutun baten ibilbidea,...
- Haurrari binetak eman eta ordenatuko ditu.

7.6.7.- Haurrak edozein egunetan egin duena lau esaldi erabiliz eta kronologikoki kontatuko du.

Iharduerak.

- Klase amaieran, irakasleak haurrari ikastetxera ailegatu denetik egin dituen gauzetaz galdetuko dio. Ona da irakasleak klase hasieran egunean zehar egingo dituzten iharduerak kronologikoki kontatzea.

7.6.8.- Haurrak osatugabe dagoen sekuentzia batean falta den bineta deskribatuko du.

Tresnak: binetak

Iharduerak:

- Istoriotxo bat sekuentziaturik azaldu. Ondoren bineta bat kendu eta haurrak asmatu beharko du zein falta den eta ikusi gabe azalduko du.

7.6.9.-Haurrak hiru esalditan berak egindako iharduera berri bat deskribatuko du.

Iharduerak.

- Haurrari iharduera berri bat irakatsi eta adi egoteko eskatu beranduago berak azaldu beharko du eta.
- Esku-lana: puntuz eginiko marrazkia emanda, haurrak birmarraztu, margotu eta moztu egingo du.

7.6.10.- Haurrak beste haur batek bere aurrean egindakoa edo bere amak egiten dituen ekintzak, hiru esalditan deskribatuko ditu.

Iharduerak.

- Irakasleak haurrari bere amak egiten dituen lanetaz galdetzen dio: tortila bat prestatzea, ikuzkailuan arropa garbitzea, eskegi eta lisatzea, ohea egitea,..
- Haurrari beste kide batek burutzen duenaz ohartzeko ere eskatu gero hiru esalditan deskribatzeko.

7.6.11.- Haurrak lanbide bat azalduko du.

Tresnak: irudiak, estanpak

Iharduerak.

- Irakasleak estanpak aurrean dituelarik, ikusten ari diren langilearen lana zertan datzan azalduko dio haurrari.
- Irakasleak haurrari lanbide konkretu bat zertan datzan azal dezan eskatuko dio: Adibidez: medikua, arotza, irakaslearen lana.

7.6.12.- Haurrak denbora-sekuentziaketa baten arabera, istorio, gertaera natural edo narrazio baten bost bineta gutxienez ordenatuko ditu.

Tresnak: binetak

Iharduerak:

- Irakasleak istoriotxo bat, gertaera natural baten prozesua edo narrazio bat kontatzen du eta haurrari bospasei bineta aurkezten dizkio ordenatu eta orden horren arrazoia azal dezan

7.6.13.- Haurrak lau esalditan gutxienez, filme bat edo telebistako programa bat kontatuko du.

Iharduerak.

- Aurretik haurra ohartarazi telebistan filme, marrazki.. interesgarriez eta ikus dezan eskatu.
- Biharamunean, haurrari kontatzeko gutxienez ondo eraturiko lau esaldiz eskatuko zaio. Ondo egiten ez baditu egituratzen lagundu.

7.6.14.- Haurrak hiruzpalau esalditan istorio atsegina, txiste bat kontatuko du.

Iharduerak.

- Irakasleak haurrari begira eraturiko pasadizo edo txiste bat kontatuko du.
- Haurra istorio dibertigarria edo txiste bat kontatzera animatu.
- Jai bat ere konta dezake.

7.6.15.- Haurrak bost esalditan asteko iharduera inportanteenak kontatuko ditu.

Iharduerak.

- Gelan astean zehar egindako gauza garrantzitsuenak konta ditzan animatu.

7.6.16.- Haurrak, bost esaldiz gutxienez, aste horretan telebistan emandako programarik inportanteenak kontatuko ditu.

Iharduerak.

- Haurrei eskatu gehien gustatzen zaizkien bost telebista-programak gogoratu eta esateko. Ahal bada, programak asteko egunekin lotu eta kronologikoki ordenatu.

GORPUTZ ERRITMOA

GORPUTZ-ERRITMOA

Igorpen artikulatorio guztiak tentsio-distentsioan oinarritzen dira.

Hitzak errepikatzen hasi aurretik beste joku batzuekin hastea beharrezkoa da: joku fonikoekin hastea, silabekin jolastea, zentzugabeko bi silabatako hitzak errepikatzea, silaba bereko baina doinu ezberdinetako hitzak errepikatzea. Beti ere, nahi den fonema igortzen laguntzen eta errazten duen gorputz-mugimenduarekin batera.

Aldez aurretik haurrak irakasleak artikulagunea nola jartzen duen ikusi behar du.

a: Besoen biraketa, ahoa ondo zabalduz *aaaaaaaaa* igortzen den bitartean.

o: Erpuru eta hatz-erakusleaz “o” irudikatuz, ezpainen inguruan turuta moduan jarrita eta *oooooo* igorritik.

u: Masailetan hatz-erakusle bana ahorantz (adarrak), aurrera jo eta paraleloki jarraitzen dutelarik *uuuuuuu* igorritik.

e: Besoak gorputzean luzaturik, lepaiztaiak atzerantz, mihia, alditxarturik lez, mihia erorita geratzen da *eeeeeee* igorritik. Beste era batean, eskua belarri ondoan jarritik, burua aldentuz, eta *eeeeeee* igorritik.

i: Hatz-erakusleak gorantz (jotarako jarrera) *iiiiiii* igorritik; arazorik izatekotan, bibrazioa sentiarazi buruan (gainean).

p: Ukabilak estuturik bular ondoan, masailak puztuta -tentsioa-; askatu aurrerantz ukabilak zabalduz eta *pa...pe...* igorritik -distentsioa-. Hasi fonema laguntzeko nahi den bokala soilik igortzen.

t: Ukabilak itxirik, izterretan jo *ta-ta-ta-ta* igorritik; *tu-tu-tu-tu* esateko lagun baten besoan jotzen dute, borobilean zein bikoteka.

k: Ukabilak estuturik bular aurrean, ukondoak atzerantz, *ka-ka-ka-ka* igorritik.

T igortzen badu, jaistaileaz mihiaren aurrerantz atzerantz bultzatu ta-ta-ta igortzeko eskatzen zaion bitartean; *ka-ka-ka* ateratzen da.

Artikulagunea lortu duenean, eskua kokots azpian jartzen zaio ka igortzen duenean, bibrazioa nabari dezan.

m: Masailetatik, besoan zehar, kulunkatzen edo, eskua leunki pasatu eta *mmmmmmm* igorritik; ondoren *ammm*, *emmm*, *immm*, *ommm*.

b: Masailak puztuta samar eta ezpainak erdizabalik, hatz-erakusleaz masailak leunki estuturik *bbbbbb* igorritik.

P-ren kontrakoa: erlaxatua p-teinkatuaren aurrean.

d: Mihia erlaxaturik punta hortz artean erakutsiz; hatz-erakuslea mihiarekiko paralelo jarrita masaila ondoan; atzerantz jasotzen da, mihia bezala, lasai m-an bezala. Mihia leloturik.

l: Ahurrak bular parean jarrita, biak batera gorantz igortzen dira, mihiaren mugimendua lagunduko balute bezala. Aldi berean mihia goiko albeolotarantz igo.

f: Katuaren moduan atzaparkadak eman, besoak txandakatuz, eta goiko hortzak beheko ezpainean jarrita *ffff-ffff-ffff-ffff* igorritz.

n: Mukiak kendu. Mihia l-ren posizioan ipini, sudurretatik arnasa hartu eta sudurretik askatu esku-gainan jarririko papertxoak mugiarazten. Alderantzizkoekin hasi. Sudurretatik ainerik botatzen ez badu, ahoa itxi, aurretik azalduz larritu ez dadin.

Guk *nnnnnnnnnn* igorri eta bere atzamarra gure sudurrean ipinarazi, bibrazioa nabari dezan. Hatz-erakusleaz narina baten gainean kulunkatu.

ERRINOLALIA. Hasi haurra erlaxatzen, sama atzetik eta lokieta masajeatuz.

Ahosabaia zirkuluan masajeatu, ahosabai gogorretik hasita; hasieran 10 aldiz egin, eta gehituz joan 100era ailegatu arte.

Luzerako masajeak ahosabai-bigunean plastikozko gakorraz batez.

Gargarak eragin.

Kkkkkkkkk ... askotan igorraz.

ñ: Azkar ni... eta nahi den bokala *nia, nia, nia*,... errepikarazten lantzen da. Atzamarrak pintza moduan jarrita, sudurrari heldu eta askatu. Fonema hau “in” grafemak elkartzean sortzen da.

N-rekin joku foniko asko egin ñ-ra pasatu aurretik.

ll: Mihia l-ren jarreran, i ahozkarazi. Fonema hau “il” grafemak elkartzean sortzen da.

y: Io-a erabili; ioioioioio azkar errepikarazi. Euskaraz grafema hau egon ez arren fonema berdina.

r: 1) L-tik. Mihia l-ren posizioan, eskua ahoaren parean, dardarati moduan bibrazio mugimenduak egin, atzamarrak eta mihi dardaratsua batera mugitu.

2) Mihia l-ren posizioan baina gaztelaniazko z ahozkatu leunki, alboetatik putz egin gabe (papera esku-gainan) eta haurrak berak masaietatik heldu airearen irteera geldiarazten.

3) Mihia l-ren jarreran jarrita haurrak esango du, irakasleak jaistaileaz mihi-gainan bibrazio mugimendua (presio txikiak)egiten dion bitartean.

4) *Nnnnnnn* esan eta jaistaileaz apurtxo bat bultzatu, mihia arinki beherantz bulkatuz (r fonema da).

rr: Mihi eta ezpainen bibrazioak landu *brrrr* (hotza dugula adierazteko erabiltzen dugun keinu eta soinua) atzeraelikadura hotsa sortzeko eta eztarriko hotsik egin ez dezaten. Zenbait kasutan alboetako airea askatzen dute, mihiaren aldeek dar-dar egiten dute eta mihiaren punta ez dute aireratzen.

Gaztelaniazko z-ren hotsaz *rrrrrrrr* egin, aire tentsioa atera eta mihia gogor ez geratzeko (Lehenbizi mihia atera eta gero ahosabairantz jotzen du). Hau esku-mugimenduz lagundu, lehenengo aurrerantz eta gero atzerantz.

Gaztelaniazko z esanaraziz, jaistaileaz mihiaren puntari heldu eta askatu zakarki.

z, s, x eta **tz, ts, tx** ahoskatzean mingainaren mugimendua retroflexua edota atzerakoia da.

s eta **z** soinuak **x**-arena baino luzeagoak dira. **s** eta **z** soinuak ahoskatzean berezitasunak somatzen dira euskalki ezberdinen artean, bakoitzak bere berezitasunak agertzen dituelarik. **x**-aren kasuan, ordea, ez dago ia ezberdintasunik. Fonema hauek ahoskatzeko egiten diren mingain mugimendua retroflexua kontuan izanik, proposatzen ditugun kinestemak hurrengo hauek liriateke:

z: Hatz erakuslea ezpain ondoan jarritz mugimendu aurrerakoia egingo du, haizearen irteera adieraziz eta *zzzzz* igorritz.

s: Hatz erakuslea **z**-rekin bezala, ezpain ondoan jarritz baina gora begiratzuz eta pittin bat gorantz eginez. Ezpainak luzaturik eta mihia erlaxaturik, putz egingo diogu aurretik esku gainean jarritako papertxo bati.

x: Hatz erakuslea atzerantz begiratzuz ezpain ondoan paraleloki jarritz, aurrera eta atzera mugituko dugu. Mihia txapaldurik aho sapaigogorraren atzeko partean.

tz: Mihia beheko hortzen ostean jarritz eta punta borobilduz hodontxo bat eginez (**z**-taren posizioa gogoratu), hatz erakuslea jarri beharrean hatz guztiekin gauza bera egingo dugu, zeren **t** fonema sartzean soinu gogorra baita.

ts: Punta atzeratuta eta ia txapaldurik, **s**-ren kinestema gogoratuz, baina hatz bakar batez egin beharrean guztiekin.

tx: Gaztelarazko **ch**-ren parekoa da. **x**-ren kinestema bezala baina hatz guztiekin.

j: Hatz erakuslea okotz azpian lepoarekin bateratzen den lekuan, fonema igorri mihi-azpiaren goratze mugimenduaz ohartzeko.

g: Hatz erakusle eta erpurua ezdarri gainean, fonema igortzean dardara somatzeko. Gargarak egin, zona hau sensibilizatzeko eta dardaren jabe izan dadin.

<p>GARRANTZIZKOA:</p> <ul style="list-style-type: none">- Zentzugabeko silabaz eta intentsitateak aldatuz eginiko joku fonikoak.- Silabak ondo sekuentziatu. Hitzzen erritmoa antzeman: <i>aaaaguuurtu, maaariineela</i>- Ondo ahozkatzen dituen silabez osatutako hitzetatik abiatu, poliki poliki zailtasun haundiagokoetan sartuz.- Bereganatzen dituen hitzez esaldi errazak sortu- Hitz egitean besoen keinu eta mugimenduez lagundu.

BIBLIOGRAFIA

- BILLAUT, J. et alii 1962 **El niño descubre su lengua materna. Juegos para la enseñanza del lenguaje.** Cincel-Kapelusz Buenos Aires
- BLAIR McCLOSKEY, David 1964 **La educación de la voz.** Los Libros del Mirasol. Bs. Aires
- BLANCO HERNANDO, Quiliano 1956 **Libro de Lenguaje.** Sánchez Rodrigo. Plasencia
- BORRAS, A. et alii 1988 **Reeducación logopédica y ortofónica.** Generalitat Valenciana. Valencia
- COOPER, J. et alii 1989 **Método para favorecer el desarrollo del lenguaje.** Editorial. Científico Médica Bartzelona
- CORREDERA SANCHEZ, Tobías 1978 **Defectos de la dicción infantil.** Kapelusz. Bs. Aires
- GOMEZ TOLAN, J. 1960 **Rehabilitación de los trastornos de Aprendizaje.** Escuela Española. Madril
- LENNEBERG, E.H y E. (comp.).1982 **Fundamentos del lenguaje.** Alianza. Madril
- LENNEBERG, E.H. 1975 **Fundamentos biológicos del lenguaje.** Alianza Madril
- LURIA, A.R. 1966 **El papel del lenguaje en el desarrollo de la conducta.** Tekne. Bs. Aires
- LURIA, A.R. 1974 **Cerebro y lenguaje.** Fontanella Bartzelona
- LURIA, A.R. 1980 **Lenguaje y comportamiento.** Ed. Fundamentos. Col. Ciencia. Madril
- LURIA, A.R. 1985 **Lenguaje y pensamiento.** Martínez Roca. Bartzelona
- MAILLO, Adolfo 1965 **Libro del Maestro para la enseñanza activa del idioma.** (3 vol) Teide. Bartzelona
- MONFORT, M. y JUAREZ, A. 1981 **El niño que habla.** Ed. Nuestra Cultura. Madril
- PAULUS, J. 1975 **La función simbólica del lenguaje.** Herder Bartzelona
- PERERA MEZQUIDA. J. 1987 **Programa de acción educativa.** Cepe. Madril
- PEREZ LERGA, Jesús 1986 **Método de logoterapia.** U.P.V. Bilbo
- PIAGET, J. et alii 1965 **El lenguaje y el pensamiento del niño pequeño.** Paidos. Bs. Aires
- RECASENS, Margarita 1987 **Cómo estimular la expresión oral en clase.** CEAC. Bartzelona
- RECASENS, Margarita 1988 **Cómo jugar con el lenguaje.** CEAC. Bartzelona
- RICHELE, M. **La adquisición del lenguaje.** Herder Bartzelona
- RIUS, M^a Dolores 1987 **Estimulación del lenguaje oral.** Seco Olea. Madril

ROSA SENSAT 1971 **Vocabulario básico infantil**. Documento 1. Equipo Rosa Sensat. Bartzelona

SANCHEZ, B. 1971 **Lenguaje Oral. Diagnostico, enseñanza y recuperación**
Kapelusz. Buenos Aires

Servicio Central de Publicaciones. 1992 **Educación Infantil. Decreto de Desarrollo Curricular**. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz

SOS ABAD, A. Miguel 1986 **Logopedia práctica**. Sos Abad. Madril

TOMATIS, A.A. 1979 **Educación y dislexia**. Cepe. Madril

VALLON, H. 1960 **La evolución psicológica del niño**. Psiqué Buenos Aires

VV AA 1983 **Diseño curricular para la elaboración de Programas de Desarrollo Individual** Servicio de Publicaciones del MEC. Madril